

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Nafarroa eta Gipuzkoa, atzoko
eta biharko lehia RAMON SOLA > 11

E.LKARRIZKETA. ANDER IZAGIRRE:

«Sari honekin denbora pixka bat erosi
nahi dut, zintzilik ditudanak idazteko» > 22


2015eko apirilaren 18a | VIII. urtea • 412. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



AZKEN DEIA BIZIRAUTEKO > 12



**Thailandiako Armada
Shinawatraren aldekoak
kanporatu nahian** 04

**Libanoko gerraren urteurrenik
ez Sirian** 07

**Al Yarmouk, palestinar
iheslarien eremua** 08



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Sinpletasuna,
Clarice, ez errazkeria, arren
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Jokoz
kanpo
- 11 **Ramon Sola:** Nafarroa eta
Gipuzkoa, atzoko eta biharko
lehia
- 15 **Ainara Azpiazu «Axi»**
- 16 **Koldo Sagasti:** Su txikiak
Gasteiz piztera
- 20 **Arantxa Urbe:** Euskal
Hezkuntza Sistema pentsatzen
- 21 **Iker Barandiaran:**
Gipuzkoarren kritikotasuna
- 31 **Itziar Irigoien:** «Big data»




**Zibilizazio berri bat
eraikitzeko deia** 12

**Haurrak protagonista egin nahi
dituzten bost liburuxka** 18

e.lkarrizketa: Ander Izagirre 22

Infraganti: Rakel Mateo 28



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } Iñaki Soto

Sinpletasuna, Clarice, ez errazkeria, arren

Mundua zoroa da. Betidanik geopolitikan interesa izan arren, azkenaldian, hainbat gertaerek zeharo harritu naute, ez soilik espero ez nituelako, baizik eta espero zitekeen ondorioz ez dutelako eragin. Mundua konplexua ere bada, baina pixka bat ulertzeko asmoz, gertaera horien ausazko zerrenda soila egin dut, balorazio handitan sartu gabe. Zerrenda buruz egin dut eta ez da, inondik inora, behin betikoa.

Duela bost urte inork, Europaren erdian, hein batean AEBen eta Errusiaren, alegia, munduko indarren arteko gerra tradizionalaren erreproduzio posmodernoan, lurretik jaurtitako misil batek 298 bidaiari zibil zihoazen hegazkin komertzial bat botako zuela esan izan baligu, III. Mundu Gerra orduantxe hasiko zela esango genuke, zalantzarik gabe. Ez da honelako ezer geratu, ordea. Areago, informazioaren aroan, ia urtebete geroago ez dakigu Ukrainian gertatu zenaz izpirik. Ez dut han gertatutakoaz espekulatu nahi, daturik ez dudalako. Baina egia dakiten erreakzioa, alde batekoena zein bestekoena, harrigarria iruditzen zait. Zer esanik ez biktima gehien izan zituena Holandaren erreakzio eza.

Guda testuingurutik aparte, baina hein batean bere ondorioz, Andreas Lubitzek bidaiari guztiekin lurrera bota zuen hegazkinaren kasua ere aipagarria da. «Terrorismoaren aurkako gudan» hartu ziren neurriek atentaturik saihestu duten zalantzarik da, baina horien ondorioz 150 pertsona hil ziren Alpeetan orain gutxi. Zoroa Lubitz edo zoroa mundua?

«Random» erako heriotza tragiko horiez gain, azkenaldian geostrategiarekin zerikusia duten exekuzioak eta heriotza bitxiak jazo dira. Boris Nemtsov politikari errusiarraren kasua edo Alberto Nisman fiskal argentinararen heriotza arduragarria aipa daitezke hemen. Baita, beste maila batean bada ere, ISISek publiko egin dituen exekuzioak ere, nagusiki Muaz Kasasbeh pilotu jordaniarren erreketak, eta «Charlie Hebdo»-ko erredakzioa kideen tiroketa eta atentatugileen heriotza. Atzerago joanda, Bin Ladenen ehizaldia edo Parisen exekutututako Sakine Cansiz, Fidan Rojbin Dogan eta Leyla Saylemez kurduak daude. Heriotza horien artean

ez dago inolako lotura zuzenik. Batzuek gerra hotzaren oroipenak dirudite eta gainerakoek bake beroaren edo guda posmodernoaren formula berriak izan daitezke.

Alor horretan, hilketa selektiboen antza izan nahi duten baina zitalki kontingenteak diren dronak aipatu behar ditugu. Ziur asko, AEBetan Obama aipatutako Bin Laden akabatzeagatik gogoratuko dute, baita azkenaldian atzerrian estatubatuar soldadu gutxien galdu dituen Administrazioa gidatzeagatik ere. Baina gerran dronen erabilera hedatu zuen presidentea ere bada. Honezkero horien ondorioz zenbat zibil hil diren esatea zaila da, baina www.livingunderdrones.org taldearen ikerketek milaka direla baieztatzen dute.

Aldi berean, Obamak AEBen eta Kubaren arteko harremanak «normalizatu» eta Iranekin energia nuklearrari buruzko akordioak ere egin ditu. Sirian, hein batean AEBek bultzatu zuten ISISen aurka, Al Assadekin akordioarik

Hannibal Lecterrek, zoro baten jokabidea ulertzeko, sinpletasuna eskatzen zion Clarice-ri. Azkenaldiko gertaeren zerrenda ikusita, mundua ulertzea «erraza» dela dioten zoroiez, ordea, ez naiz fido

erdietsiko ote duen ikusteko dago. Oraingoz, Mendebaldeak han kurduekin egin dituen aliantza puntualak ezohiko gertaera gisa ulertu behar dira.

Hori guztia, munduak II. Mundu Gerratik jasan duen krisi humanitariorik larriena bizi duenean. Aita Santuek ere dimititu dezaketen mundu xelebrean bizi gara.

Hannibal Lecterrek zoro baten jokabidea ulertzeko sinpletasuna eskatzen zion Clariceri, gertaeren soiltasunari eta giza izaeraren konplexutasunari erreparatzeko. Zenbaitetan mundu zoro hau ulertzen saiatzeko sinpletasuna lagungarria da, baina askok horren ordez errazkeria darabilte. Konspirazioek, beren barrokismoan, errazkeria bilatzen dute, fenomeno konplexuen azalpen soila. Zerrenda hau ikusita mundua ulertzea erraza dela dioenaz ez naiz fido. Geopolitikan, hobe da mundua zoroa dela onartzea, alternatiba zoroen munduan bizitzea baita. •

PRESIO ELTZEA

Thailandiako Armadak Shinawatraren aldekoak politikatik kanporatu nahi ditu

 POLITIKA / Pablo RUIZ DE ARETXABALETA

Thailandiako Armadak politikatik betiko kanporatu nahi du «alkandora gorrien» oposizioa, azken urteotan behin eta berriro hauteskundeak irabazten dituela ikusirik, batez ere nekazaritza inguruetako babes handiari esker. Lehenengo urratsa Yingluck Shinawatra lehen ministro ohia politikatik baztertea izan da. Shinawatrari politikan aritzeko bost urteko debekua ezarri diote eta, horrez gain, hamar urteko kartzela zigorra jaso dezake.

Orain arte Thailandiako historian ez da inoiz horrelako neuririk hartu. Asanblea Nazionalak -190 alde, 18 kontra eta 18 abstentzio- kargua betetzeko gaitasunik gabe utzi zuen joan den urtarrilean. Zabarkeria leporatu zion arroz ekoizleentzako laguntzen kudeaketan. Ustez, laguntza horiek galera itzelak eragin zizkieten Estatuari 2011 eta 2014 urteen artean.

Baina Parlamentuak estatu kolpea eman zuten militarren aginduak jarraitzen ditu, militarrek beraiek izendatu baitzituzten diputatuak.

«Demokrazia hil da gaur Thailandian, baita legeari errespetua ere», salatu zuen Shinawatrak Parlamentuak erabakia hartu zuen egunean. «Ni suntsitzeko tresna bat da», gaineratu zuen.

«PROBOKAZIOA»

Ordu gutxira, Fiskaltzak, «ustelkeria» leporatuta, lehen ministro ohiaren kontrako prozesua iragarri zuen, baina bi gertaerak ia aldi berean izatea «ausazkoa» izan zela adierazi zuen. Fiskaltzaren arabera, nekazarien aldeko diru-laguntzen programa bat baliatuz, Shinawatraren Gobernuak arroza prezio erdian erosi zuen.

Auzitegi Gorenak salaketa baieztatu du eta hamar urteko zigorra izan dezaketen delituenatik epaituko du.

«Alkandora gorriak kalera ateratzeko probokazio hutsa da», esan zuen Jatuporn Prompanek, «alkandora gorrien» buruak. Hala ere, momentuz, Shinawatraren jarraitzaileei etxean gera-

tzeko eskatu die, protestak egiteko une egokiaren zain. Argi dute militarrek gerra-legoa erabiliko dutela edozein manifestazio eragozteko.

Yingluck Shinawatra 2011. urtean iritsi zen boterera, bere alderdiak hauteskundeak irabazita. Oposizioak beti hartu du bere nebaren txotxongilotzat. Neba, Thaksin Shinawatra, atzerrian bizi da gaur egun, bere

aurkako jazarpenagatik, iheslari. Bera ere estatu kolpe batek atera zuen boteretik 2006an; ustelkeria ere egotzi zioten; politika egiteko gaitasunik gabe ere utzi, eta, azkenean, kartzela zigorra ezarri zioten.

Baina estatu kolpe eta guzti, hurrengo hauteskudeetan oposizioak ez zuen lortu garaipena eta berriro Shinawatrazaleak atera ziren irabazle. Ziklo hori

(estatu kolpea-hauteskundeak estatu kolpea-eta berriro hauteskundeak) behin betiko apurtu nahi dute militarrek orain Yingluck politikatik at behin betiko utzita.

Baina «alkandora gorrien» atzean nekazarien eta txiroen babesa dago. Oraingoan, mugimendu horrek oso zuhur jokatu du. Gobernua erori baino lehen ere, Shinawatraren dimisioa eskatzen zuten manifestariekin gatazkak saihestu zituen.

Hilabeteak egon ziren oposiziozaleak Bangkokeko erdialdean protesta egiten, azkenean militarrek esku-hartzea lortu arte. Egun horietan alkandora gorriak ez ziren kalera atera. Yingluck Shinawatrak berak ere lasai aurre egin zien protestei orduan, baita manifestariekin administrazioko hainbat eraikin okupatu zituztenean ere. Estatu kolpearen ondoren, agerraldi sinboliko batzuk baino ez ditu egin, besteak beste, Bhumibol

Thailandiako Armadako soldaduak kontrol batean hegoaldeko Narathiwat probintziako errepede batean.

Madaree TOHLALA | AFP



«Ekintza hauen helburua Yingluck eta Shinawatra familia osoa Thailandiako politikatik kanpo uztea da», salatzen dute estatu kolpearen aurkako aktibistek

erregea dagoen ospitalean. Hala ere, errepresioaren aurkako protestak ez dira asko hedatu, epe erdira haserre handitu badaiteke ere alkandora gorrien eta Shinawatraren jarraitzaileen artean.

«HASERREA KALERATUKO DA»

Thitinan Pongsudhira Bangkokko Chulalongkorneko unibertsitateko irakaslearen arabera, azkenean haserre hori azaleratu egingo da. Bere ustez, Thailandia gero eta gehiago berotzen ari den «presio eltzea» baita.

Epe luzera, Armadarentzat egoera gobernaezina izan daiteke. Eskubideak eta herritarren askatasunak murriztuz, «nazio adiskidetze» prozesuari ekin diotela diote militarrek. Baina bereizketa politikoa eta soziala oso sakona da Thailandian.


Alde batetik, hirietako eliteak daude; Shinawatra familia ustelkeriaren ikurtzat daukate eta estatu kolpea babesten dute. Bestetik, iparraldean eta ipar-ekialdean Thaksin eta Yingluck Shinawatraren alde dago jende gehiena –batez ere nekazariak, eta Bangkokeko klase pobreak–, eman dizkieten laguntza soziala- tuz, bere alderdiak 2011 urtetik gaur arte hauteskunde guztiak irabazi ditu.

Yingluck Shinawatra 1967ko ekainean jaio zen Chiang Main, (iparraldean). Bederatzigarren alaba zen leinu txinatar botere- tsu baten familian. 1938an abizena aldatu zuten eta Shinawatra izen tailandiarra hartu zuen.

Zeta merkataritzaren bitartez eta maileguk emandako diru- irabaziekin –garai hartan banka negozioa oraindik hasten ari zela– aberastu ziren. Chiang Mai- ko unibertsitatean Zientzia Poli- tikan lizentziatu zen, eta 1990ean, AEBetako Kentucky Unibertsitatean doktoretza es- kuratu. Hortik aurrera familia- ren enpresak kudeatzeari ekin zion. Hala, AIS sakeleko telefo- no-operatzailearen zuzendari izan zen eta, azken etapan, SC Asset Company etxegintzako sektoreko enpresen presidente.

Nebaren kasuan bezala, bote- rean bi urte eta erdi zeramatzala, oposizioko Alderdi Demokra-

Momentuz, Shinawatrak bere jarraitzaileei etxean geratzeko eskatu die, protestak egiteko une egokiaren zain. Militarrek argi utzi dute edozein mugimendu gogor zigortuko dutela



Prayut Chan-ocha jenerala, batzorde militarreko burua. Pornchai KITTIWONGSAKUL | AFP



Yingluck Shinawatra lehen ministro ohia. Christophe ARCHAMBAULT | AFP

tak Gobernuaren aurkako protesta kanpaina hasi zuen. Hainbat hilabetez Bangkokeko erdialdea erabat gelditzea lortu zuen. Azkenean, ezegonkortasunaren aitzakiarekin, Armadak estatu kolpea eman zuen berri- ro iazko maiatzaren 22an.

2007an, Epaitegi Konstituzio- nalak bost urtez kargua betetze- ko gaitasunik gabe utzi zituen Thaksin eta beste ehun ordezkari politiko. 2008an, beste epaite- gi batek, dagoeneko atzerrian zegoela, bi urteko zigorra ezarri zion. Ordutik atzerrian bizi da.

Orain bere arreba historia be- ra bizitzen ari da, baina oraingo- an Parlamentua izan da, ez auzi- tegiak, politikatik bota duena.

«Nire errugabetasuna berres- ten dut», adierazi zuen Yingluck Shinawatrak Fiskaltzak salaketa jarri zuenean, eta auziak bere eskubideak urratu zituela gai- tzetsi zuen. «Arrozaren diru-la- guntzaren plana oso plan ona zen eta ez zuen inor kaltetu», gaineratu zuen. Hala ere, zigo- rra «ez da harritzekoa», esan zuen.

«Akusazio prozesuan ez nuen eskubiderik izan», salatu zuen Auzitegi Gorenak epaitegira era- mango zuela iragarri zuenean, eta esku-hartze politikorik ez izateko eskatu zuen lehen mi- nistro ohiak. Hala ere, epaiketan aurkeztuko diren lekukoengan eta frogetan konfiantza duela esan zuen.

Epaiketa bihar bertan hasiko da –estatu kolpetik ia urtebete ondoren– eta berarekin batera beste 21 pertsona eseriko dira akusatuen aulkian.

2014an Auzitegi Konstituzio- nalak Shinawatra dimititzera behartu zuen polizia-arduradun bat kargutik kendu zuelako, «nagusikeria» leporatuz. Eta ho- rren ondoren hasi zen ustelke- riaren aurkako batzordea arro- zaren gaineko diru-laguntzen auzia ikertzen. Ustelkeriaren aurkako batzordearen arabera, arrozaren plana hauteskundeei begira antolatutako estrategia izan zen. Lehen ministroak arroz tonako 15.000 bat (396 eu- ro inguru) ordaintzea agindu zuen, merkatuan prezioa 7.000 batekoa zenean.

Erakunde horren arabera, pla- nak 2011 eta 2014 urteen bitarte- an 13 milioi euro inguruko gale- rak eragin zizkion Estatuari, ustelkeria suspertu zuen eta, or- dainketak atzeratu zirenez, ne- kazariengan kalte ugari eragin zituen.

ARMADAREN MEATXUAK

Aste batzuk geroago, Armadak boterea ekuratu zuen, protestei loturiko indarkeria ekintzak eki- ditek helburuaren argudioa emanda. Gaur egungo gober- nuak, Prayuth Chan-ocha jene- ral ohi eta Batzar Militarren presidente buru denak, adierazi zuen 2015eko bukaeran hautes- kunde demokratikoak antolatu- ko zituela, baina dagoeneko go- bernukide batzuek ohartarazi dutenez, hauteskundeei urtebe- teko atzerapena izan dezakete.

Chan-ochak ziurtatu zuen ez zuela agindu Parlamentuak le- hen ministro ohiaren kontra egitea. Hala ere, parlamentari gehienak militarrek aukeratu dituztenez, espresuki agindu be- harrik ere ez zuen.

Demokraziaren aldeko eta Diktaduraren aurkako Frontea- ren bozeremaileak, berriz, bes- telako iritzia du. Thanawut Wi- chaiditek esan zuenez, «ekintza horien helburua Yingluck eta Shinawatra familia osoa Thai- landiako politikatik desagerra- raztea da. Yinglucken gaitzespe- nen atzean esku ikustezin bat dagoela uste dut».

Azken hamar urteotan Shina- watraren aldeko mugimenduko 150 kideei politika egitea debe- katu diete. Bitartean, Armadak oposizioa meatxatu egin du, protestak isilarazteko. «Lagun- tzeko eskatu diegu. Ez badute ulertzen, berriro aginduko die- gu», adierazi zuen Udondej Sri- tabutrek, batzorde militarreko arduradunetako batek.

Hainbat oposizioburu deitu zituzten, besteak beste, Nattwut Saikuar, Alkandora Gorrien ki- dea. «Bere jarrera zuzentzeko gonbidapen» hauek –militarren hitzen arabera– ondorio latzak ekar ditzakete: herritik atera edo sartzeko debekua; zerga kontrol estuak edota kontu ko- rronteak ezin erabiltzea.



«Eraikitzaileak ez diren galderak» egiten dituzten kazetariak ere mehatxu horien pean dau dela gaineratu zuen Prayut jeneralak. Eta duela egun batzuk argiago utzi zuen, keinu serioz eta zalantzarik erakutsi gabe, honakoa esan zuen erregimenari gustatzen ez zaizkion albisteak argitaratzen dituzten kazetariez: «Litekeena da hiltzea».

Estatu Batuetatik iritsitako kritikek ez dituzte mehatxu hauek gelditu. Daniel Russel Asiarako Estatu idazkariaren albokoak esan zuen lehen ministro ohiaren aurkako auziak «politikoa izan daitezkeela». Atzerri Ministerioak berehala deitu zion AEBetako enbaxadoreari kritika horiengatik azalpenak eskatzeko.

Mehatxu horiek guztiak nahi-koak ez balira, militarrek salata-riak bilatzen dituzte herritarren artean. Chan-ocha batzorde militarreko buruak tailandiarrei eskatu zien segurtasun indarren «begiak eta belarriak» izateko.

Bangkokeko Auzitegi baten aurrean granada batek eztanda egin ondoren –biktima edo zauriturik gabe– militarrek adierazi zuenez, «atzerritarren konfiantza berreskuratzeko, segurtasunak lehentasuna izan behar du, eta herritarrei dei egiten diegu agintarien begiak eta belarriak izan daitezen». Izan ere, militarrek agintean jarraituko dutela ziurtatu nahi dute eta, horretarako, neurrira egingdako Konstituzioa baliatuko dute.

Militarrek euren gustukoak ez diren galderak egiten eta albisteak argitaratzen dituzten kazetariak mehatxatu dituzte. «Litekeena da hiltzea», garbi esan zuen Prayut jeneralak

Konstituzio berriaren bitartez, Armadak botereari eutsi, Shinawatraren aldeko alderdiak debekatu eta Parlamentuaren edozein erabakiren gaineko betoa ziurtatzen du

Ikasle tailandiarrek epaitegi militar baten aurrean joan den martxoan egindako protesta batean.
Pornchai KITTIWONGSAKUL | AFP

ESTATU KOLPEA IXTEKO AZKEN URRATSA

Thailandiako militarrek estatu kolpearekin hasitako eszena politikoa itxiko duen eta bere etsai politikoak boterera itzultzea galaraziko duen Konstituzioa prestatzen ari dira. «Konpondu beharreko azken hamar urtetako arazoak aztertuz idatzi dugu Konstituzioa», esan du Paiboon Nititawanek. Nititawan Gobernuaren aurkako iazko protesten buruetako bat izan zen eta militarrek saritu egin dute Konstituzioa idazteko batzordean sartuz. 2016an agindutako hauteskudeekin batera, Konstituzioa sistema berriaren oinarria izango da, baina 80ko hamarkadakoaren antza handia izango du –ez hautatutako militar batek eta elite monarkikoak zuzendua–. Lege berriak Shinawatraren parte hartzea debekatuko du, 2001etik hauteskunde guztiak irabazi arren. Teknokrata-talde batek hautatuko ditu senatariak eta hainbat eserleku gordeko dira epaileentzat eta militarrentzat. Hala, Shinawatraren aldekoek debekuak saihesteko moduren bat aurkituta ere, hauteskundeon ondorengo Parlamentuaren edozein erabaki kontrolpean izango dute Senatuaren betoarekin. Paiboon neurri horien alde dago alderdi politikoetatik badatoz, «errazagoa izango delako usteltzea», politikan sartzen diren enpresaburu handien kontra elite tradizionalen diskurtsoa erabiliz.

Horrela, Konstituzio berria osatzeko lanetan diharduen batzordeak hartutako erabakiaren arabera, batzar militarreko kideek politikan parte hartzen jarraitu ahal izango dute. Ez da harritzekoa hori erabaki izana, militarrek beraiek aukeratu zituztelako batzorde horretako kideak.

Thaksin Shinawatra boteretik kendu zuen estatu kolpearen ondoren ere, 2007an, Konstituzio berria egin zen eta, horren arabera, Senatuak kontrol ahalmen handiagoa zuen, senatarien erdiak baizik ez zirelako izango hauteskunde bidez aukeratutakoak.

Modu horretan, militarrek eta epaileek lan horretan bere gустuko ordezkariak aritzea ziurtatu zuten. Baina oraingoan senatari guztiak goi-funtzionarioek izendatuko dituzte eta epaileek eta militarrek hainbat eserleku erreserbatuta izango dituzte.

Gainera, lehen ministroa bera ere ez da nahitaez hautagai gisa aurkeztutakoetako bat izango.

«Aurrerantzean, politikariak burokrata talde txiki baten kontrolpean egongo dira», dio Khemthong Tonsakulrungruangek, Chulalongkorneko unibertsitateko konstituzio zuzenbideko irakasleak.

Iazko estatu kolpetik Thailandia gerra legearen pean bizi izan da. Lege horren ondorioz, turisten kopurua nabarmen jaitsi da, bidaia agentziek ezin dutelako turistentzako aseguruak erosi.

Agian horregatik, joan den martxoan legea bertan behera utzi zuten. Baina, bere ordezkari «44. sekzioa» izeneko artikulua erabiliko du. Artikulu horrek botere bereziak ematen dizkio Prayuth Chan-ocha lehen ministroari. Besteak beste, bost pertsona baino gehiagoko manifestazioak debekatu; kargurik gabe edozein pertsonaren zazpi eguneko atxikioetak agindu, komunikabideak zentsuratu; hots, gerra legearen antzeko mugak.

Dagoeneko ehunka politiko eta aktibista kargurik gabe atxilotuta eraman dituzte Armadako koarteletera eta epaitegi militarrek horietako batzuk epaitu eta zigortu dituzte.

 IKUSMIRA

LIBANOKO GERRAREN URTEURRENIK EZ SIRIAN

Libanoko gerraren 40. urteurrena izan da asteon. 1975eko apirilaren 13an entzun ziren lehen tiro hotsak. 15 urte luze iraun zuen libanoarren arteko guda zibilak. 15 urte, 150.000 hildako eta 17.000 desagertu. Nazioarteko eta eskualdeko potentziek gerra hau baliatu zuten lehia geopolitikoan. Ordaindu, ostera, libanoarrek ordaindu zuten. Zedroen herriko komunitateek batetik besteari kontra ekin zioten. Sunitak xiiten aurka, drusoak kristauen kontra, kristauak palestinar errefuxiatuen aurka... guda larriaren zein zeinen aurka zegoen jakitea zaila bilakatu zen askotan.

Drama hura ez errepikatzeko hautua egin dute libanoarrek, musulman zein kristauak. Baina beldurrez ikusten duten Siriakoa, ondoko herrialdeak hartu baitu lekukoa. Siriakoa ez da oroimena, errealitate krudela baizik. Han ere denak denen etsai. Noiz arte? Noiz izango da oroimen hutsarako urteurrena?

Dabid LAZKANOITURBURU



ESTATU ISLAMIKOAREN ERASOALDIA

Damaskoko Al Yarmouk, Siriako gerraren basakeria agerian utzi duen palestinar iheslarien eremua

Pierre Krähenbühl UNRWA palestinar iheslarietako laguntza eskaintzeko sortutako NBEko agentziako mandatariak Al Yarmouk Damaskoko iheslari eremuan harrapatuta geratu diren zibilak errespetatzeko eskatu die aste honetan borrokan ari diren aldeei. «Neurtu ezin diren irainak jasan behar izan dituzte iheslari horiek. Bertatik alde egin nahi dutenei laguntza ematen saiatzen jarraituko dugu», adierazi zuen astelehenean, orain astebete Damasko Siriako hiriburura iritsi ondoren.

Al Yarmoukeko iheslari eremua 2012ra arte hiriburuko auzorik dinamikoenetako bat zen. 700.000 pertsona inguru bizi ziren bertan, horietako 220.000 palestinarrek. Bertako merkataritza eta kultura giroa zirela medio, kaleak jendez beteta egon ohi ziren.

Baina gerra hasi zenetik, eremua hustu egin da pixkanaka eta orain urte batzuk azoka erraldoi bat zen lekua eremu mortua da orain: ez dago zer saldu, ez eroslerik, ez bizitza arrastorik; erasoek eragindako hondakinak besterik ez.

Gaur egun 18.000 pertsona inguruk jarraitzen du bertan, gehienak palestinarrek eta gainerakoak siriarrak. Gerrak etxea suntsitu ez badie, bertan ezkutatzen dira, kalera irtetea arrisku-tsuegi izan daitekeelako, batez ere hilabete hasieratik, EI, Estatu Islamikoko jihadistak Al Yarmoukera sartu zirenetik.

ZAKURRAK JATEKO BAIMENA

Azken urteotan, UNRWaren laguntza izan dute iheslari eremuko biztanleek jan ahal izateko. Iheslari batzuek barazki batzuk landatzea lortu izan badute ere, nazioarteko laguntza-ren premian zeuden Al Yarmoukekoak. Baina gerrarekin batera iritsi zitzaizen setioak eragin zuen janari guztiak agortzea.

Ondorioz, Al Yarmoukeko imamak fatua (islamean, buru-

zagi erlijioso batek hartutako lege erabakia) bat eman zuen argitara, ordura arte debekatuta zeuden abere batzuk (zakurrak, katuak eta arratoiak, esaterako) jatea bizirik jarraitu ahal izateko onartzen dela esanez.

Puntu horretara iritsi ziren iheslari eremuko gabeziak. Borrokan eraginez, 2013ko ekainetik 2014ko urtarrilerako UNRWA iheslari eremura sartu ezinik egon zen, janaria banatzeko aukerarik gabe, alegia. Uste da ehun pertsona inguru hil zirela gosez hilabete haietan. Epe ilun hartan bertako hazi eta belar guztiak jan zituzten herritarrek,

 **JENDARTEA /** Asier VERA

Sirian bizi diren gizakiek azken urteotan jasan behar izan duten egoera negargarriaren beste kapitulu bat baino ez da Al Yarmoukeko eremuan egun dutena. Egoera larriagotu egin da Estatu Islamikoko jihadistak bertara sartu direnean. UNRWA agentziako adituek edonor kezkatzeko moduko irudia ezagutarazi dute.

Al Yarmoukeko herritarrek UNRWak banatzen duen janariaren zain.
UNRWA

baita kalean aurkitutako belarrik tristenak ere.

«2014ko urtarrilean Al Yarmoukera itzuli ginenean, pasadizo ikaragarriak kontatu zitakuten. Esaterako, alaba txikiari titia ematerik ez eta erditu be-

rria zen zakurraren titia eman zion amaren kasua», azaldu dio GAUR8ri Raquel Marti UNRWAko kideak.

2014ko urtarrilean itzuli zen agentzia eremura, zazpi hilabetezko etenaldiari amaiera emanetz. NBEko adituen kalkuluen arabera, iheslari guztiei janaria eman ahal izateko egunean 400 kaxa banatu behar dituzte. Kaxa horietako bakoitzak zortzi laguneko familia hamar egunez elikatu dezake. Baina hilabete haietan beharren laurdena ere ezin izan zuten bete.

Horregatik da hain indartsua UNRWA agentziak banatu eta GARA egunkariak joan den astean argitara emandako argazkia. Milaka lagun ikus zitezkeen hondakinen artean, NBEk eramandako elikagaien zain, gose-



Gosez ehun pertsona inguru hil ziren hilabete haietan. Epe ilun hartan bertako hazi eta belar guztiak jan zituzten herritarrek, baita kalean aurkitutako belarrik tristenak ere

«Bideo batean ikus daiteke gizon bat etxean duen arropa guztia sutara botatzen, familia hotzak akabatzen zegoelako. Eskura zeukan irtenbide bakarra zuen», esplikatu du Martik

ak amorratzen. Mundu osora iritsi zen irudi ikusgarri bezain esanguratsua.

Etenaldi gehiago ere izan dira. 2014ko abenduaren 6tik 2015eko martxoaren 4ra arte janaririk banatu ezinik egon ziren, eta gauza bera gertatu da Estatu Islamikoko jihadistak Al Yarmoukera sartu ondoren, hilaren 1ean, alegia. Herritarren egoera jasanezina da, nahiko janaririk ez izateaz gain, urtebete baitaramate edateko moduko urik gabe. Eta argindarrik gabe orain ia bi urte geratu ziren bertako iheslariak, eta oso negu gogorrak joan dira bi urteotan.

Ahul dagoenarentzat gosea bezain txarra izaten da hotza. Arazoari aurre egin nahian, herritar batzuek etxeko altzariak

Siriako Armadak egindako eraso batean hildako bi palestinarren ehorzketa, joan den astelehenean.
Rami AL-SAYED | AFP

bota zituzten sutara, berotzeko asmoarekin. «Bideo batean ikus daiteke gizon bat etxean duen arropa guztia sutara botatzen, familia hotzak akabatzen zegoelako. Eskura zeukan irtenbide bakarra zuen», azaldu du Raquel Martik. «Horri erantsi behar zaio emakume asko etxean erditzen direla, erietxera joateko aukerarik ez dutelako. Horrek ere hildakoak ekarri ditu».

Edonola ere, Al Yarmoukekoa ez da aparteko egoera bat. UNRWAK hamabi iheslari eremu ditu Siria osoan, baina horietako bostera sartu ezinik dago. Khan Eshieh da horietako bat (hiriburutik 27 kilometrora). Bertan ez dute elikagairik banatu 2013ko abuztuaz geroztik. Beste eremu batzuk indarra erabiliz hustu dituzte, Sbeinehn, kasu. Beraz, bere garaian Palestinatik ihes egin behar izan zuten palestinarrek berriz ihes egin beharrean dira. Horietako 10.000 palestinar inguru NBEn eskolatan hartu dituzte, Sirian bertan. «Al Yarmouk Siria osoan gertatzen ari denaren metafora bat baino ez da, beste toki batzuetan ere gauza bera gertatzen ari denez, he-dabideetan aipatu ez arren», esan du Martik.



Raquel Marti. Asier VERA

RAQUEL MARTI

«Ezinbestekoa da aldeei presio egitea»

Raquel Marti UNRWA palestinar iheslariari laguntza eskaintzeko sortutako NBeko agentziak Estatu espainolean duen egoitzako zuzendariak GAUR8ri nabarmendu dionez, Ekialde Hurbilean eragin ahalmena duten munduko agintariei eta gatazkan esku hartzen ari diren aldeei dei egin behar zaie su-etena adostu eta konponbidea negoziatzeko. Lehen helburua Assaden Gobernuak iheslari eremuaren aurka agindu dezakeen eraso saihestea da, milaka lagunengatik bizitza arriskuan ipiniko luke eta: «Hori arazoa sarraski baten bitartez desagerraraztea izango litzateke».

«Yarmoukeko agertokian eragile asko daude, nor bere interesarekin. Negoziatzen hastea ezinezkoa izan da. Horregatik da ezinbestekoa eragile horiei presio egitea, eta hori munduko agintari jakin batzuek baino ezin dute lortu», erantsi du. Bere ustez, talde armatuei arma gehiago emateak ez du ezer konponduko. Ezta iheslari eremura indarra erabiliz sartzeak ere.

PAE, Palestina Askatzeko Erakundeak ordezkariak bidali ditu Damaskora iheslari eremua husten lagundu dezaten, baina ideia hori ez da egokia, UNRWako kidearen iritziz. «Nork berrmatuko du ebakuazio operazioaren segurtasuna? Nora eramango ditugu iheslariak, Siria osoa tankerako egoeran dagoenean?», galdetzen du Raquel Martik.

Berak proposatzen duen irteerak ere badu arazorik. NBek eskatzen du «giza korridore seguruak» zabaltzeko, Al Yarmouketik alde egin nahi dutenek aukera bat izan dezaten. Martiren iritziz, palestinarrek beraiek hartu beharko lukete eremua uzteko erabakia. «Benetako konponbide bakarra litzateke talde armatuek zibilak bizi diren lekuetatik alde egitea», erantsi du. Dagoeneko 100 lagun inguru iritsi dira Tadamonera, Al Yarmouketik gertu dagoen lekura. Ihes egitea lortu zuten eta eskola publiko batean hartu dituzte.





Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Jokoz kanpo

Argudia liteke itxurakeria hutsa dela, marketin kontua, baina eraikinen jasangarritasun ziurtagiriak gero eta ohikoagoak dira, eta gero eta jende eta diru gehiago mugitzen dute inguruan. Ziurtagiri hauek eraikin berriek ingurumenean eragindako albo kalteak minimizatzea dute helburu; aldi berean, sustatzaileak dirua aurrez dezake epe ertain eta luzera, eta salmenta amu gisa ere baliagarriak dira. Inguotuan, Oronak Hernanin duen ikerketa zentroak eta IKEAk Baionan irekiko duen saltokiak, esaterako, harro erakusten dute jasangarritasun ziurtagiria.

Ezagunenak BREEAM eta LEED dira gurean. Metodologia ezberdinak erabili arren, parekoa dute prozedura: eraikin baten errendimendua neurtzen dute, eta horren arabera puntuazioa eman, jasangarritasunaren ikuspuntu ezberdinak kontuan hartuz. Egun-argiaren aprobetxamendua, CO₂ isurpena, eraikuntza materialak, energia kontsumoa, hondakinak, garraioa... Futbolean bezala, puntu bakoitzak axola du eta partidu guztiak dira garrantzitsuak. Hala da, Juanan: miresgarria da sustatzaile, arkitekto eta ingeniariak jasangarritasun puntu bakoitza borrokatzeko erakusten duten grina.

Futbolaren similitudarekin jarraituz, 70 futbol zelaik adinako azalera izango du Gipuzkoako Parke Teknologikoak Irun eta Hondarribia artean hartuko duen eremuak. Miramon txiki gelditu da antza, eta bi udalok ados jarri dira Urdanibia-Zubietako lurak enpresa jarduerari eskaintzeko.

Zalantzak zalantza (Miramongo okupazioa %70ekoa da, eta Bizkaiko eta Arabako teknologia parkeena ez da %60a iristen), demagun proiektua aurrera doala. Sustatzaileek jasangarritasun

ziurtagiriak eskatuko dizkiete arkitektoei, aholkulariak BREEAM edo LEED puntuak nondik lortu pentsatu beharko dute, eta hara non, konturatuko diren kokalekuak berak izugarri baldintzatuko duela puntuazio duin bat lortzea.

Izan ere, ezertan pentsatzen hasi aurretik, kokalekuak soilik ziurtagiriaren puntuen %10 arriskuan jar dezake, mugikortasun jasangarriari loturikoak, alegia. Puntuok kalkulatzeko metodologia Realari etxetik kanpo irabaztea baino errazagoa da: BREEAMek, esaterako, Excel formatuko taula single bat du eskuragai, hoguei minutuko lana eskatzen duena. Nik neuk egin dut saiakera, eta tira, lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke Gipuzkoako Teknologia Parkeko arduradunei esateko nekez lortuko dutela kokapenari dagokion punturik, arbitroaren laguntzaz ez bada.

Autobus sarea nahikoa ez, eta tren geltokiak urrunegi ditu garraio publiko bidezko irisgarritasun punturik lortu ahal izateko. Bizikleta bidezko irisgarritasunari dagokionez, egin liteke zerbait akaso, fede handiko gizona naiz-eta. Funtzio bakarreko eremua izanda –ez al da parke teknologiko kontzeptua alboratzeko garaia?–, hiri zerbitzuekiko gertutasunari dagokion punturik ere ez luke lortuko (*amenities* BREEAM jergoian, hots, janari denda, postetxe, kutxazain eta abarrak). Bada puntu interesgarri bat, gehienezko auto aparkaleku kopuruari dagokion, baina ez dirudi kontuan hartzeko asmorik dutenik errepide sarbideak diseinatzeko beharra lehentasun gisa adierazi dutenean.

Asko hitz egiten dugu ikerketa eta berrikuntzaz, baina hiri-gintzari dagokionez lehengo lepotik burua. 70 futbol zelai, baina jokoz kanpo. •



Ilustrazioa: Ander Gortazar Balerdi

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Nafarroa eta Gipuzkoa, atzoko eta biharko lehia

Badatoz, bai, euskal kazetarioi buruhauste gehien ematen dizkiguten hauteskundeak. Lau herrialde, lau hiriburu eta beste 500 udalerritik gora jokoan, bakoitza bere berezitasunekin; ezin esan bere txikitasunean Hego Euskal Herriak konplexutasunik ez duenik. Hauteskunde mapa osoa egoki enfokatzea ariketa zaila da, are gehiago sigla berriak agertu eta ezagutzen genuen guztiaren azpitik nolabaiteko lur mugimendu nahasia antzematen den honetan. Biziki interesgarriak dira, duda barik, azken urteotan Araban sumatzen diren haize berriak, boto-emaile berrien eskutik heldutako bultzadak. Gure metropoli bakarra izateagatik, Bilbo beraren bilakaerak ere arreta merezi du. Baina horiek gutxietsi gabe, bi bataila nagusiak Nafarroan eta Gipuzkoan jokatu direla antzeman daiteke. Bi lehia ezberdin, egun berean erabakiagatik politikoki une historiko ezberdinetakoak diruditenak.

Maiatzaren 24ko gaueko lehendabiziko begirada Nafarroako emaitzen gainean pausatu beharko dela dirudi. Pentsaezina zena gertatu baita bertan, lau urte eskas-tan. Gogora dezagun 2011ko maiatzean NaBai eta Bilduren artean legebiltzarkideen %30 eskuratu izana urrats historikotzat jo zela, eta izan bazen. Baina oroi dezagun ere UPNk eta PSNk erosotasun osoz osatu zutela koalizio gobernua, eta bazirudien horrekin erregimenaren zutabeak ia beste belaunaldi baterako tinko berrezarritza gelditzen zirela.

Uste ustela, zorionez. Gertuago zegoen ia mende oso batez esperotako irauliaren aukera. Hortxe bertan da orain, eskura, inoiz baino egingarriago, bost asteren bueltan. Eta nolabaiteko *deja vu* sentsazioa aitortzen du-te duela 35 urteko aukera hura bizi (eta galdu) zutenek. Bukle moduko bidea egin du UPNk: sortu, hazi, goia jo, ahuldu, eta, hondoratze bidean akaso? Beste hitz batzuekin, agian, baina orduko erronka guztiak (erabakitze esparrua, Euskal Herriaren gainerako lurraldeekiko harremana, euskara, ikurrak, eskubide zibilak, aberastasuna versus pobrezia...) mahai gainean dira berriz. Nafarroa demokratizatzeko aukera, ez besterik: frankismoa behingoz atzera utzi, elite aberats atzerakoiei boterea kendu, nafar guztien arteko berdintasuna bermatu, benetako

historia agerrarazi... Gauza zinez sinpleak baina oraindik lortu gabeak. Hortaz, XX. mendeko usaina du bataila honek, hamarkada luzez atzeratu ostean bueltan datorrena, oraingoan, bai, irabazteko esperantzarekin. UPNren hizkerak berak islatzen du hori; beste garai batekoak diren arerioen kontrako iraineekin eta boto-emaileei txertatu nahi dizkien izuekin egiten ari da kanpaina.

Gipuzkoakoa, aldiz, XXI. mendeko norgehiagoka da, 2011ko urriaz geroztiko denbora berriarena, politikagintza «moderno» oinarri duena... Horregatik da etorkizunari begirako laborategi aparta. Hauteskundeok ez dira jokatzen Nafarroako zelai berean, ez eta tresna berdinekin ere. Hutsuneak hutsune, demokraziak oinarri sendo-agoak ditu Gipuzkoan, bizikidetzan aurrerago egin dela dirudi, alderdien arteko eztabaidetan iraganak baino etorkizunak hartu du pisua, ezker-eskuin dikotomia nabariagoa da... Gutxiengo eskubideak ditugu hizpide

Gutxiengo demokratikoak ditugu hizpide oraindik Nafarroan, «jateko gauzak» Gipuzkoan. M24an Nafarroan itxi liteke iraganeko orria, baina etorkizunekoa nolakoa den Gipuzkoan hasiko da idazten

oraindik Nafarroan; herritarren ongizateaz hasi gara hizketan behingoz Gipuzkoan. Eta esparru horretan, asko dira hauteskontziek argituko dituzten zalantzak: ondasuna nola banatu nahi den, diru publikoa nola erabili behar den, ustelkeria zantzuaren aurrean gipuzkoarren tolerantzia maila zenbatekoa den, Gipuzkoa Garaile bezalako *lobby*-ek eta "El Diario Vasco" gisako botere faktikoek norainoko eragina duten, benetako eraldaketak lortzeko EH Bilduk nondik eta nola bultzatu behar duen...

Kinka honetatik Nafarroa Garaian gehiengo politiko berri bat sortzen bada, behingoz iraganeko orria pasa ahal izango da, etorkizunari bide emanez, segur aski atzeraezin bilakatu den prozesu batean. Hortik aurrera ezer ez da berdina izango. Baina biharko Euskal Herri hori nolakoa izango den aurreikusteko, hobe M24an ipar-mendebaldera begiratzea, Gipuzkoa aldera. •

AZKEN DEIA BIZIRAUTEKO

Biosfera erabat agortu baino lehen,
zibilizazio berri bat eraikitzeko deia

 **JENDARTEA /** Nerea GOTI

«Gehienez ere bost urte inguru ditugu hazkundearen mugei buruzko eztabaida zabal eta transbertsala sendotzeko, eta demokratikoki alternatiba ekologiko eta energetiko zehatz eta bideragarriak eraikitzeko». Azken Deia manifestuaren proposamena da eta zabalkunde handia lortu du mundu mailan. Jada 7.000 sinatzaile baino gehiago ditu.

Azken Deia du ize-
na eta manifestu
gisa aurkeztu da.
Finean gizarte
osoari helarazten
zaion hausnarke-
ta bat da: ezin dugu jarraitu
amildegira eramaten gaituen
hazkunde modelo honekin.
Egun, 7.000 sinatzaile inguru
ditu deiak, eta gehiago izateko

bidean dago. Intelektualak, poli-
tikariak, sindikalistak... perfil
anitzeko atxikimendu zerrenda
luzea lortu du.
Ideia Estatu espainolean jaio
zen 2014ko udan, eta duela gu-
txi Bilbon aurkeztu dute. Hala
ere, Euskal Herriko eta Estatu
espainoleko mugak gainditu di-
tu jadanik. Hamabost hizkun-
tzatara itzulita, zabaltze proze-

**Zumaiako itsas-labarra
garbitzeko lanetan ari
dira hainbat gazte
irudian.**
Imanol OTEGI | ARGAZKI PRESS

suan jarraitzen du, eta sinatzaile
gehiago irabazten ari da han eta
hemen.
«Planetak ezin du gizarte pro-
duktibista eta kontsumista
mantendu», dio testuak, eta
gaineratu, «biosferarekin oreka
berreskuratzea helburu duen gi-
zartea behar dugu». Manifestu-
tik hartutako esaldi biek deiaren
mamia laburbiltzen dute.
Izan ere, egungo erralitate-
ren deskribapenean oinarritzen
dute deia. Manifestuak dioenez,
«ikertzaile eta zientzialari bu-
ruargienak alarmarako zantzu
sendoak ematen ari zaizkigu
XX. mendeko zazpigarren ha-
markadatik hona: orain arteko
hazkunde joerekin jarraituz ge-
ro (ekonomikoa, demografikoa,
baliabideen erabilera, kutsatzai-
leen ekoizpena, desberdintasun-
en hazkundera), XXI. mendean
zibilazioa kolapsatzea da ondo-
rio probableena».
Diotenez, errealtate horri au-



re egiteko une honetan proposatu diren bideak «garapen jasagarriaren mantra kosmetikoak» dira, aurrean daukagun erronkari aurre egiteko aski ez direnak.

«Teknologia ekoefizienteen aldeko apustu soilak ere, edo balizko 'ekonomia berde' batek, ondare naturalen eta zerbitzu ekosistemikoen merkantilizazioa ezkutatzen du», dokumentuaren arabera.

Beste kontu batean jartzen du arreta: krisi ekologikoa «ez da gai partziala». Dioenez, ekologiarik gertatzen zaionak gizarte osoan du eragina; elikaduran, garraioan, industrian edota gatazka belikoetan, besteak beste. Ekologia, «finean, gure ekonomiaaren eta bizitzaren oinarria da», nabarmentzen duenez.

Horregatik, hain zuzen ere, bizitzarekin zerikusia duen arazo nagusiari so egiten dio manifestuak: baliabideak urritzen ari diren planetan, 7.200 milioitik gora biztanleri elikagaiak eta bizitza duina ematea beharrezkoa da. Hala, zibilizazioa berrekitzea planteatzen du, eta, horretarako, «errotiko aldaketak beharko dira bizimoduetan, produkzio moduetan, hirien diseinuan eta lurralde antolaketan», baina batez ere «baloreetan».

ORAIN DA MOMENTUA

Azken Deiak proposatzen duen eraldaketa handiak «bi oztopo itzel» dituela onartzen du manifestuak: «bizimodu kapitalistaren inertzia eta talde pribilegiatuen interesak». Horregatik, «indarrean den hegemoniarekin haustura politiko sakona» behar dugula diote. Eta, izatez, momentu egokia da gaurkoa haustura hori gertatzeko, sinatzaileen aburuz.

Batetik, diotenez, «zorionez, gero eta jende gehiago ari da erreakzionatzen». Bestalde, Estatu espainoleko egoera politikoan zentratuta, M15ak ekarri dituen «duintasunak eta esnaldi demokratikoak gizarte antolaketan batzuek ahalbidetuko duten prozesu konstituziogilea mami-tzen» ari dela uste dute.

Transformazioaren bidean, proiektu alternatiboek aldakun-

tza proposamen «askoz ere adorea- reatusagoak» planteatzeko deia egiten die manifestuak. Izan ere, parean daukagun erronka «Neolitikoko iraultza edo industria- iraultzaren mailako gertakari historikoen neurrikoa izango da», eta denbora amaitzen ari da. Manifestuaren arabera, «gehienez ere bost bat urte dauzkagu hazkundeari buruzko eztabaida zabal eta trantsbertsala sendotzeko» eta «demokratikoki alternatiba ekologiko eta energetiko zehatz eta bideragarriak eraikitzeko».


Errezeta zaharrek ez dute balio eta ez dago errezeta magikorik. Sinatzaileek argi dute aldatetako «gehiengo handiak» behar dituela. «Boterearen nagusikeriak eta aberastasun pilaketak eragindako bidegabe- rien aurka borrokatzeaz gain, errealitatea onartuko duen eredu batez ari gara, naturarekin bat etorriko dena, Lurraren mugak ekologikoen barnean», argitzen dute.

Florent Marcellesi manifestuaren sinatzailea eta bultzatzaileetako bat da, eta Equoko bozeramaile Europako Parlamentuan. Euskal Herrian bizi den aktibista eta ikertzaile ekologista honek argi dauka orain dela gauzak aldatzeko unea. Dioenez, sindikatu, alderdi eta mugimendu ezberdinetako lagunek bat egin dute deiarekin, eta ez hori bakarrik, zonalde ezberdinetan bizi direnek diagnostikoa berdina egin dutela adierazten du.

ESTATU ESPAINOLEKO PANORAMA

Marcellesiren hitzetan, estatu mailan jaio zen ideia, baina izan zuen harrera ikusita (bost mila sinadura inguru hasierako hila- beteetan), berehala etorri zen hedatzeko asmoa. «Emaitza espektatibaren gainetik» egon dela aipatzen du, eta erantzun indartsu horrek sare bat osatzeko asmoa ekarri du. Kolektibo eta mugimendu zehatz batzuek, tartean, Euskal Herriko Desazkundera mugimenduak, deia bere egin, eta manifestua zabal- tzen ari dira.

Beste kontu bat plantetau- zion Gaur8k manifestuaren bul-



Greenpeacek Pasaian egindako protest.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



tzatzaile Florent Marcellesi. Ongizatea hazkundearekin eta azken hau kontsumoarekin lotzen duen gizarte batean, pentsaera horri zelan eman buelta eta nora begiratu dezakegun ideia hori gauzatzeko. Eredurik ba al dago?

Marcellesiren ustez, «berez ekintza natural bat da kontsumoa eta ezin da gaixotasun bat den kontsumismoarekin nahastu. Gizarte modernoaren patologia bat da». «Kontsumitzea kontsumitzeagatik, zentzurik gabe, ezin zaio eutsi. Kontsumo arduratsuaz hitz egitean, kontua ez da kantitatea, kalitatea baizik», azaldu zuenez. Adibide bat jarri zuen: «ondoko ekoizleari tomate bat erosten diodanean, badaikit zer jaten ari naizen, kalitatea jaten ari naiz, ez diot nire osasunari ez planetarenari kalte egiten, eta gainera, ez diet zapaltzaileei erosten, eta ondoko lagun horren lana onartzen dut. Beste balore batzuk ezartzen ari gara». Gaineratu zuenez, hone-lako jokabide sinple bat supermerkatuara joan eta salneurri baxuko tomate bat erostea baino

askoz baliotsuagoa da, beste to-mate horrek munduari buelta eman diolako eta lan baldintza ez-duinetan ekoiztu dutelako, bere zapoak ez daukalako ondokoaren antzik eta askoz kalitate txarragokoa delako ingurumenaren eta pertsonen osasunarentzat».

Azken Deia proposamen ilusionagarri bat ere badela adierazi zuen Marcellesik. «Ez da diskurtso alarmista bat, arazo bat daukagula dioen mezua da, arazo horren parte izan gara eta orain soluziobidearen parte ere izan gaitezke. Gure jokabideari esker gu hobeto bizi eta gure biloben bizitza ere hobetuko dugu, beraz, nahiko mezu baikorra da; oraingoak, gaur ogia eta bihar gosea, besterik ez du». «Planetako biztanleen gehien-goari gaurdanik ogia eman eta gure ondorengoaren ogia bermatzea da planteatzen duguna», esan zuenez.

Sinatzaileen artean, Euskal Herriko izen ezagun ugari dago. Pablo Ibarra EHUKo irakaslea horietako bat da. Gaur8ri azaldu zionez, Azken Deia daukagun

arazoaren muinera doa. «Sakoneko soluziobide batek zibilizazio aldaketa bat exijitzen du, baloreen sistemaren errotiko aldaketa bat», aipatu zuenez. Egiten duen planteamentua argia da: ahalik eta etekin handienak bilatzearen ideia egungo sistemaren baloreetako bat da, beste askoren artean, eta horiek guztiak aldatzeko proposamen bat egiten bada, zibilizazio aldaketa batetaz hitz egiten ari gara.

Ibarraren hitzetan, «mugarik gabeko hazkundearen balioa gizartean nagusi dela, mezua ez da galtzea, baizik eta modu

Bidasoa eskualdean erakitzekoak ziren errauskailuaren aurkako manifestaldia.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Manifestua arazoaren muinera doa, zuzentzeko neurriak proposatzen ditu, eta sakoneko soluziobideek balio aldaketa eskatzen dute; zibilizazio aldaketa»

«Ez dago irtenbide teknologiko magikorik....gu, euskaldun eta europar, lehenengo mundu pribilegiatuan bizi gara eta baldintza sozial orekatuetan, baina hori ere kolokan dago»

arduratsuan kontsumitzea eta zentzuzko bizitza baldintza batzuk ezartzea mundu guztia-
rentzat». «Gelditu ezineko hazkunde-
an oinarritutako ekonomia batetik berdintasunezko ekonomia batera eraldatzeko prozesua da honako hau», eta «hori da, hain zuzen, bizirauteko bide bakarra», nabarmendu zuenez.


Iñaki Barcena EHUKo Zientzia Politikako irakasleak ez du zailtzarik izan Azken Deia sinatzeko orduan, eta poztu da manifestua izaten ari den zabalkundearekin. «Askok errepertatu eta maite ditudan pertsonak, gehienak mugimendu ekosozialistakoak, hasi ziren manifestua zabaltzen eta nire izena gehitu nuen duda barik lehengo momentutik», azaldu zion Gaur8ri. Esan zuenez, «guztiok konpromiso hori bera hartzea behar-beharrezkoa», eta kontuan hartu behar dugu «gu, euskaldun eta europarrak, lehenengo mundu pribilegiatuan bizi garela, eta baldintza sozial orekatuetan, baina hori ere kolokan dago».

DENON KONPROMEZUA

«Erronka handia da baina ez dago inor edota ezer soberan», adierazi zuenez. Barcenaren ustez, «kantariak eta unibertsitariak, artistek eta kazetariak, gazteak eta zaharrek... denok agertu behar dugu konpromisoa beharrezko aldaketa horren alde... Eta aldaketa ez da soilik 'ekologikoa'; naturarekiko harremanak aldatu behar ditugu, noski, baina baita pertsona artekoak ere. Patriarkatua eta arrazismoa mehatxu larriak dira».

Gizarteak daukan erronkaren aurrean nondik hasi argi du: «ariketa xumeak, txikiak badira ere, eredugarriak izan daitezke norabidea aldatzeko». Esan zuenez, «desazkundera hemen dago, goia (edo behea) jo dugu. Kontua da ea bide arrazional eta demokratikoetatik onartuko dugun edo kaos eta gatazka kriminalaren aldetik, Sirian, Afganistan, Iraken edo Afrikan gertatzen ari den moduan». Ostrukarena egitea XXI. mendean, horixe da erokeria.

ESTEREOTIPOAK *boteprontean*



iRRITZIA:



Ainara
AZPIAZU
"AXPI"



Udadaberria metamorfosi erraldoi bat da, oso denbora tarte laburrean gertatzen dena: landare-erreinua k eraberritze-prozesu osoa egiten du, ugaltze-aparatua prestatuz; animalia-erreinua, aldiz, zoramen hutsa da. Zurrumbilo horretan murgilduta, baratze-zain aztoratuak ere lurrari eta zeruari begiratzen die, zalantzati, dagoeneko kalabazak landatzeko garaia den ala ez erabaki ezinda.

Ez guke presarik izan beharko udarako landaketak egiteko orduan; hobe da pixka bat itxarotea, baldintzak egokiak izan arte (erraza da esatea, ezta?). Badago, edonola ere, zalantzarik gabe egin beharko dugun lan bat: belarrak kontrolatzea. Belarrek haziak egitea ekiditen badugu, datoren urterako lan asko aurreztuko dugu.

Lurraren aroak baimentzen badu, apiriletik aurrera udarako laboreek hartuko dituzten lursailak prestatzen hasi gaitezke.

Udaberriko lanak ortu ekologikoan



Argazkiak: Haritz MAYORA SARASUA

Egokiena azaleko estalki begetala kentzea litzateke, aitzurrarekin azaleko lana egin ez. Hau da eraginkorrena, eta, horregatik ere, lan gehiago egin behar da. Belarra ahalik eta laburren moztea eta berau erretiratzea irtenbide ona izan daiteke, baina gerora belarren kontrolean arreta gehiago jarri beharko dugu. Hurrengo laboreak, aukerak, lauhortz edota lorezaintzako pala batekin lurra askatzea izan beharko litzateke. Ondoren, zokor edo mokilak aitzurrarekin edo rotabatorearekin apurtzea le-
torke. Azkenik, ongarritzea egin beharko litzateke, gutxienez 6 hilabeteko simaur konpostatua erabilia (2-4 kg/m²-ko dosia). Berriz ere rotabatorea arinki pasatu, konposta eta lurra nahasteko, eta lursaila landaketarako prest guke.

Ortu handia eta makineria eskura daukatenean, kultibadorea pasatzen dute aurrena, lurpea lantzeko makina ondoren, gero konposta zabaltzen dute, kultibadorea berriz ere pasatu, eta prest dute lursaila. Neguan zehar ongarri berdeak erein badira, orain da momentua berauek moztu, lehortzen utzi eta lurrari gehitzeko.

Udaberrian, zalantzarik gabe, bisitari

izango ditu bareak. Kontu handia izan behar da molusku hauekin, gau bakarrean landaketa berriak desagerrarazi baititzakete. Horregatik, ezinbestekoa da ortuaren perimetro guztia garbi mantentzea, bareek non gorde izan ez dezaten. Erraustak bareak geldiarazten ditu, baina behin bustiz gero, eraginkortasun guztia galtzen du. Nekazaritza ekologikoaren araudiak moluskuen kontra onartzen duen sustantzia bakar burdin fosfatoa da.

Eguzkiak jadanik indarra hartu du, onerako eta txarrerako. Lurra berotzen da, eta horrek ahalbidetzen du udarako laboreak behar den bezala garatu ahal izatea, eta fruituak ematea. Bestalde, eguzki indartsu batekin lurra asko eta azkar lehortu dezake, landaketa berrien heriotza eraginez, hazi-tegietan kalte handiak sortuz edota lur gozoa zena harri gogor bihurtuz. Horregatik, landaketa egiterakoan ganoraz ureztatu behar da ortua, landareen inguruan beti hezetasuna egon dadin sustrai berriak garatu artean. Hobe da ugari eta lantzean behin ureztatzea, urri eta sarri baino. Landaretxo batek gehiegi sufritzen badu, bere garapena ez da egokia izango. Landaketa

egiterakoan landaretxoei zainak pittin bat moztuz gero, sustrai berrien garapena sustatzen da. Ereintzak egiteko, hobe da goizez jardutea; landaketak egiteko, aldiz, hobe da arratsaldea.

Zalantzarik gabe agertuko den beste ezagun zahar bat zorria da. Zoritxarrez, bere etsai naturalak (mantangorriak, kasu) oraindik erabat esnatu gabe daude. Zorriak gogoko ditu kimu gazteak, zenbat eta nitrogenodunagoak, orduan eta hobe. Horregatik, komeni da simaur freskoaren erabilera ekiditea, honek nitrogeno asko baitauka. Beroa nabarmenago egiten denean, ilarretan zorriak eta gaixotasun kriptogamikoak (oidioa edo zurina, nabarmenki) agertzeko aukerak handitu egiten dira.

Uztari dagokionez, udaberria da, agian, aniztasun txikiak daukan urtaroa: neguko landaketako azken porruak geratu daitezke, baita zerbak, espinakak, azak edota azaloreak ere, baina litekeena da dagoeneko guztiak igota egotea. Orburua eta zainzurria, aldiz, sasoi betean daude udaberrian. Apirila bukaeran-maiatzean, baba beltza eta ilarra ere etorriko dira.

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

APIRILA

Apirilean neguak oraindik ere azkeneko kolpeak eman ditzake. Horrela izanda ere, lurra pixkanaka berotuz doa. Lasai, oraindik denbora soberan dago.

Landaketak: Tipula eta tipulina landatzeko sasoia da. Aire libreko lehenengo letxugak ere landatu daitezke, baita borraja ere. Negutegian tokia izanez gero, tomatea, piperra, alberjina... landatu daitezke, uztailan fruitua ematen hasiko direnak. Marrubien landaketa-sasoia mugan gaude.

Ereintzak: Ilargiaren arabera, kalabaza, kalabazina eta pepinoa erein daitezke babespean. Maiatzean prest egongo dira ortura eramateko. Aire librean zein negutegian, lehenengo lekak, azenarioak, borraja, errukula eta erremolatxak erein daitezke ere. Aldiro-aldiri, letxuga mota ezberdinak eta errefautxoak ereitea komeni da, etengabe hornituta egon gaitezen. Patata ereiteko sasoia da oraindik.

MAIATZA

Patata ereiteko garaiz gabiltza. Maiatzaren erditik aurrera, printzipioz, aire libreko landaketa guztiak egiteko moduan gaude, nahiz eta zenbait ortugilek nahiago izan tomatea eta piperra landatzeko apur bat

gehiago itxaron. Izan ere, gerta daiteke maiatza trakets samarra izatea, eta eginda-ko landaketak behar den moduan ez gartztea. Ekainean, oraindik, landaketak egiteko denbora dago.

Landaketak: Bigarren hamabostalditik aurrera, tomatea, piperra, alberjina, kalabaza, kalabazina, pepinoa, meloia. Hilabete hasieratik, letxuga, kukulua, zerba, borraja...

Ereintzak: Azenarioa, errefautxoak, borraja, erremolatxa, leka, artoa, indaba, patata, letxuga, kukulua, azak, errukula.

EKAINA

Esan bezala, oraindik ere sasoiz gabiltza tomate eta piper preziatu horiek landatzeko, nahiz eta ia udazkenara arte itxaron beharko dugun uzta jasotzen hasteko. Bigarren hamabostalditik aurrera, udazken-neguko porruak landatzen hasi gaitezke. Berdina esan genezake azez eta azaloreez. Lonbardak eta brusela-azak landatzeko komeni da, bi labore hauek oso ziklo luzea baitaukate. Kalabazari eta kalabazinei nolabaiteko akoltzatua jartzea komeni da, lurrraren hezetasunari eusteko. Lastoa, konposta, egur xehatua edota plastikoa erabili daiteke, baina kontua izan beharko dugu bareekin, oso gustura egoten baitira akol-

txatu azpian. Ekainetik aurrera, letxugak ez dira ondo moldatzen negutegian.

Landaketak: Tomatea, piperra, alberjina, kalabaza, kalabazina, pepinoa, porrua, aza, azalorea, brusela-aza, lonbarda, letxuga, kukulua, zerba, borraja...

Ereintzak: Azenarioa, errefautxoak, erremolatxa, borraja, leka, letxuga, azakiak

LANDARE ESTRAKTUAK

Landare askok frogatu dute ortuko izurrien eta gaixotasunen aurkako ahalmena, edota laboreak indartzeko gaitasuna. Asuna eta azeri buztana dira horien artean ezagunenetariko bi. Udaberrian, bi landare hauek berriz ere agertzen dira. Hortaz, orain dugu momentu egokia horiek batu eta oso lagungarri izango zaizkigun “saldak” prestatzeko. Landare bakoitzaren estraktua aparte prestatu behar da.

Asuna onddoen prebentzio modura: asun kilo bat 10 litro uretan beratzen utziko dugu 4 egunez, egunean behin, behintzat, irabiatuz (euri ura erabiltzen bada, askoz hobe; kloratutako urarekin ari bagara, komenigarria da gau batez beratzen uztea, kloroa lurrundu dadin). Ondoren, asun guztiak erretiratu eta salda iragazi behar da. Toki fresko eta lehorrean gorde ezazue, ahal dela hermetikoki itxita. 1:10eko dilu-

zioan erabili ureztapenean, hostoetara zuzendua. Goizez aplikatu behar da, eguzkiak indarra hartu baino lehen. Oharra: asuna 10-15 egunez beratzen utziz gero, saldak landarea indartzeko balio du.

Azeri buztana onddoen prebentzio modura: 1 kg azeri buztan egosi, ordu erdiz, 10 ur litrotan. 1:10eko diluzioan erabili.

NOLA BABESTU GURE BARATZAK EKOLOGIKOKI?

ENEEK-ak, Biolur Gipuzkoa elkarteak eta Iparraldeko Biharko Lurraren Elkarrekin (BLE), Bio d'Aquitaine-rekin batera, Euskal Herriko baratzeetako izurri eta gaixotasun ohikoenei buruzko liburuxka praktikoa argitaratu dute “Nola babestu gure baratza ekologikoki?” izenburupean. Laborari ekologikoen esperientzia fitxatan atondu da, arazoan jatorria, ondorioak eta sendabideak azalduz. Arazoa era errazean identifikatzeko taulak eta aurkibidea ere badauzka, laboreka sailkatuta. Paper plastifikatua argitaratu dute, tamaina egokiarekin, eta baratza gurekin eramateko moduko material hau ENEEK-an zein Biolurren eskuratu dezakezue.

ENEEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

Su txikiak Gasteiz piztera

Koldo Sagasti

Eduardo Gleanok zioen mundua su txikiek osatutako itsaso bat dela, eta su bakoitzak berezko dirdira duela. Ezberdinak dira su guztiak, batzuk handiak, besteak txikiak, kolore guztietakoak. Batzuk su motelean ari dira; besteak, berriz, sugar zoroa daukate, airea txinpartaz betetzen duen horietakoa. Horrexek ematen dio munduari duen xarma, aniztasunak, ezberdinen arteko elkarrekinak, elkarrengandik ikasteak, eta nor bereaz harro elkarri irakasteak... horrelaxe egin du aurrera gizateriak mundua mundu denetik. Zenbait, aldiz, mundua kolore bakarrekola zeneko garaietara bueltatzeko tematuta daude.

Oroitzen dut Gasteiz Vitoria zenean. Orduan hiria kolore bakarrekola zen. Zeruaz gain zeru azpikoa ere grisa zen hiri hartan; telebista, berriz, zuri-beltzean. Kolore bakarrekola zen, halaber, hango jendea; eta hizkuntza ere, bakarra. Nik, inguruan gertatzen zen guztia ulertzen ez banuen ere, ordurako banekien helduek “grisak” izeneko gizon batzuei zietela beldur, baina horretaz ez zutela haurrokin sekula hitz egingen, eta akaso horregatik haien kopetak ere grisak zirela. Oroitzen dut bizilagun zurbilen hiri hartan beste kolore bateko pertsona bakarra zegoela, Essie Hollis, orduko Baskoniako fitxajea. Eta akordatzeko naiz ordura arte beltzak entziklopedietan

baino ez nituela ikusiak, eta gerripekola baino ez zerametela jantzita. Orduan deskubritu nuen bestelako kolore batzuk ere bazirela. Eta Hollisen atzetik beste asko etorriko ziren, eta hiriko grisari koloreak ateratzen hasi zitzaizkion. Eta orduan euskarra ikasteak ere ahalbidetu zidan munduari kolore askotako antiojoez begiratu dakioketela deskubritzea. Eta batzuen eta besteen ekarpenez hiri gris hura Gleanok irudikatutako su txikien itsaso bilakatu zen. Gaur da Gora Gasteiz Eguna, sugar horri hauspoa emango diogun eguna, kaleak berreskuratuz, plazetan aberats egingen gaituen aniztasuna erakutsiz, Gasteiz su biziz pizteko eguna. •

HAURRAK, PROTAGONISTA

Herri parte-hartzaile eta hezitzaileak eraikitzeko asmoak hamahiru eragile batu eta bost liburuxka ekarri ditu

 **HEZKUNTZA/** oihana.llorente@gaur8.info

Parte hartzea, hori da Herri hezitzailea, eskola herritarra ekimeneko kideen ustez herritar aktiboak hezteko giltza. Eta ate hori irekitzeko, parte hartzea sustatzeko aholkuz betetako bost liburuxka argitaratu dituzte. Haurren aisialdi hezitzaile, euskaldun, herritar eta parte-hartzailea garatzeko lagungarri izan nahi dute.

Haurren parte hartzea sustatzea helburu duten hamai-ka gomendiok argia ikusi du-
te aste honetan Herri hezitzaile, eskola herritarra ekimenak argitaratutako bost liburuxketan. Haur eta nerabeen aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra gara-

tzea dute helburu koadernotxoek. Hala jasotzen da bederen, ekimenaren oinarri filosofikoak ipini eta Jakineko zuzendari Lorea Agirrek idatzitako lehen alean. Mundua ikusteko eta sentitzeko berezko modua dute haurrek eta ikuskera hau oztopatu baino, hura garatzeko baliabideak eskaini nahi dituzte liburuxka hauekin.

“Parkeak bizitzeko modu berriak”. Hori du izenburua Txusma Azkonak eta Alfredo Hoyuelosek idatzitako liburuxkak. Arrasateko Txatxilipurdi elkar-teko Mireia Bazek azaldu dizki-gu bost liburuxken sekretuak eta ale honetan Iruñeko bi irakasle hauek egungo parke ereduak ezbaian jarri dituztela nabarmendu du. Hiri eta herrietan dauden jolasguneak homogeneoak dira bi irakasle

hauen begietara, kolore eta es-
truktura antzekokoak denak. Haurrek zertan eta nola jolastu behar duten jolasguneen egiturak berak erabakitzen duela iritzi diote, eta askotan jolas modu horiek sormen zein psikomotrizitate beharrak ere ez dituztela asetzen kritikatu dute.

«Beldurraren gizartea» gisa definitu duten honetan, gainera, umeek helduen zaintzapean aritu behar dute jolasean eta horregatik daude parkeak eserlekuz inguratuta. Azkonaren eta Hoyuelosen arabera, ez dira zertan jolasgune berriak eraiki behar, baina daudenak haurren ikuspegiaren arabera moldatu beharko lirakeela defendatu dute. Ez jolasguneak bakarrik, Francesco Tonucci pedagogo entzutetsuaren teoriarekin bat

eginez, kaleko beste espazioak ere haurren begietatik antolatu beharko lirakeela uste dute bi irakasle hauek. Izan ere, Tonucik dioen bezala, umeen begietatik eraikitzen diren herriak, herritar denen beharrak asetzen dituzten herriak dira.

Udalekuak eta ludotekak ere izan dituzte hizpide beste bi liburuxketan. Orain arte helduek pentsatu eta programatu dituzte udaleku ireki zein itxiak, Amarauna elkartearen arabera, baina, horretan ere haur eta nerabeen nahi eta beharrak aintzat hartzeko ordua heldu da eta udalekuak haientzat egin beharrean, haiekin egiteko proposamena luzatu dute liburuxkan. Horrek noski, prestaketa, garapena eta ebaluazio unean gazteak kontuan hartzea dakar.

HEZKIDETZA, TXIKITATIK

Antzeko hausnarketa dakarte Txatxilipurdikoek “Nola egin ludoteka parte hartzailea” liburuxkan. Ludoteketako paretak gaingintu eta euskararen eta jolasaren espazioak berreskuratzearen alde agertzen da Maialen Gorosabel egilea. Hezitzaileen papera eraldatu eta haur eta nerabeen bidelagun izatera igaroz, bizilagunekiko, naturarekiko eta herriarekiko harremanak sustatzeko aholkuak jasotzen ditu bertan. Herriak handitzen joan diren heinean, umeek naturarekin duten harremana ahuldu egin dela uste du Bazek. Are gehiago, umeen garapenean ohiko bihurtzen ari diren, estresa, hiperaktibitatea ala gizentasuna moduko arazoak ere harreman eskas horren ondorio direlakoan dago. Finean, ludoteka haurrentzako egiten den egitasmo bat izan ordez, haurrekin egin-dako espazioa izatea lortu nahi du Gorosabelek.

Parkeetan, udalekuean zein ludoteketan haur eta nerabeen parte-hartzea garatzeko orduan ikuspegi feminista nola txertatu azaldu nahi izan du Urtxin-txa Bizkaiak azken liburuxkan.



Maialen Gorosabel eta Mireia Baz labetik atera berri diren bost liburuxkak eskuetan. Juanan RUIZ ARGAZKI PRESS

«Orain arte helduek programatu ditugu udalekuak, baina haurren nahiak aintzat hartzeko ordua heldu da, eta haientzat egin beharrean, haiekin egiteko garaia da»

Herriak handitzen joan diren heinean, umeek naturarekin duten harremana ahuldu egin da, eta horrek estresa, hiperaktibitatea zein gizentasuna moduko arazoetan eragina du

Hezkidetzaren aldeko hautua txiki txikitatik egin behar dela sostengatu eta hura garatzeko hamaika aholku praktiko jasotzen ditu.

Arrasaten aurkeztu zituzten labetik ateratako bost liburuxkak ostegunean eta orain hezitzaile, guraso, aiton-amon eta edozein herritarren eskuetara helarazi nahi dituzte. Herritar oro izan daiteke liburuxken hartzailea, Bazen ustez, haur bat hezteko tribu oso baten beharra dagoelako.

Ekimen oso baten bultzada

Liburuxka bakoitzaren sinatzai-leen atzean, baina, Herri hezitzailea, eskola herritarra ekimeneko kideak daude. Herri parte-hartzaile eta hezitzaile bat sortzeko asmoak eragile anitz elkartu zituen 2012. urtean. Andoainen egin zuten lehen hitzordu hura eta ordutik haur eta gaztetxoek aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzeko ibilbide bidean eragile gehiago gehitu zaizkie. Egun, Irrien Lagunak Kluba, HUHEZIKo Sorguneak ikertegia, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarteak, Euskaltzaleen Topagunea, Ikastolen Elkarteko aisialdi-taldea, Urtxintxa Bizkaia, Amarauna, Tabakalera-ko hezkuntza saila, Pil-pilean elkarteak, Ttakun kultur elkarteak eta Hik Hasi heziketa egitasmoak osatzen dute ekimena.

Euskal Herriko lurralde eta herri askotarikoak dira eragileak, bai eta esparru eta izaera desberdinetakoak ere; izan ere, aisialdi eremukoak, hezkuntza formalekoak, euskalgintza alorrekoak nahiz administrazioetik gertu dauden eragileak, federazio eta elkarteak daude bertan. Denak, baina, hezkuntza eta aisia beste modu batean amesten duten eragileak dira eta haurrentzako, gazteentzako, eta, oro har, herritar guztientzako ego-kiak diren herriak eta hiriak

pentsatzeko eta eztabaidatzeko grinak biltzen ditu.

Hiru urteko hausnarketek aisialdi eredu bat adostera eramatu hamahiru eragile horiek. Zazpi zutabeen gainean eraiki dute gainera aisia eredu hori: «Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea eta, hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitze ahalmena ematea. Era berean, eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartu nahi dira, pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak josiz, finean», azaldu digu Bazek.

Zazpi kontzeptuek halabeharrez elkarrekin joan behar dutela ere gaineratu du; izan ere, bere ustez, eremu horiek elkar ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, proposamen koherente eta oso bat osatuz.

Definitutako aisia eredu hori egikaritzeko argitaratutako bost liburuxkez gain, beste bileran lerro ere zehaztu ditu Herri hezitzaileko lantaldeak: datorren astean Donostiako Kursalean egingo duten “Herri hezitzailea, eskola herritarra” batetik, eta, laster aurkeztuko duten herri hezitzaileen sarea, bestetik.

Zehazki, Donostiako Egia auzoa, Otxandio, Baigorri, Soralue, Baztan, Dima, Arrasate eta Agurain lotuz josiko dute herri hezitzaileen sarea. Bazek azaldu moduan, hezkuntza, eskolatik haratago doala sinetsita, hezkuntza, herrigintza eta udala alorrek batzen dituen talde multidisziplinarra osatu dute zortzi lekuotan, eta talde horiek dira proiektuaren ezinbesteko zutabe.



Jardunaldien berri eman zuten unea. GAUR8

FINLANDIA ETA KATALUNIA GERTUTIK EZAGUTZEKO BETA

“Herri hezitzailea, eskola herritarra” lelopean, hainbat ekitaldi egingo dira datozen ostiral eta larunbatean Donostiako Kursalean. “Haurren hiria” egitasmo entzutetsuaren sortzaile Francesco Tonucci pedagogoarekin duela bi urte hasitako bideari jarraipena emango diote bigarren edizio honetan. Oraingoan, baina, Finlandiako, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutzeko aukera egongo da.

Ezaguna da oso Finlandiako hezkuntza ereduak eta hala erakusten dute nazioarteko neurketetan zein beste hainbat arlotan eskuratutako emaitza bikainak. Eredu honen sekretuak aletzeko Finlandiako Hezkuntza Kontseiluko ordezkari Leo Pakhin izango da Donostian. Zehazki, bi hitzaldi eskainiko ditu: “Herritarren beharren neurria egindako hezkuntza politika” batetik, eta, “Haurra bere osotasunean hezteko, hezkuntza humanizatua”.

Bestalde, Bartzelonako Ripollet herriko “El Martinet” eskolako esperientziaren berri zuzena emango dute bertako zuzendari eta hezitzaile diren, hurrenez hurren, Montserrat Navarro eta Lidia Estebanek. Horrez gain, Euskal Herrian bertan abian jarritako hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izanen da. Tartean, Gaztematika, Harremonak eta aniztasunaren kudeaketa oinarri duten hainbat praktika.

Nagusiki, euskal hezkuntzaren topagunea den Hik Hasi ari da prestaketa lanetan, eta, jardunaldi hauen bidez, aurtun 20. urte bete dituztela gogoz ospatu nahi dute. Euskal irakaskuntzan ziharduten guztien eztabaidarako zein elkarlanerako gune izateko bokazioz jaio zen, eta, bi hamarkadaren ostean bere horretan dihardu. Formazio-jardunaldi horietako lehen egunean heziketa ardatz duten herriak izango dituzte hizpide nagusi eta, bereziki, Hik Hasiren arabera, teknikariak, zinegotziak, hezitzaileak eta gurasoak izango ditu entzule. Bigarren egunean, berriz, aurreko parte-hartzaileez gain, irakasleak eta eskoletako hezitzaileak ere bertaratuko direlakoan daude.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Euskal Hezkuntza Sistema pentsatzen

Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan LOMCE legea indarrean. Lehen hiruetan, gainera, Gasteizko Hezkuntza sailaren HEZIBERRI 2020 egitasmoa. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, FALLOUX legea.

Hiru lege horiek dira, batik bat, gaur egun Euskal Herriko heziguneetan eragiten ari diren hezkuntza legeak. Hiruetatik bat bera ere ez da Euskal Herriko jendartearen beharren eta errealtatearen arabera. Kontrara, Espainiarekiko eta Frantziarekiko loturak estutzeko diseinatutako legeak dira. Hauxe da, azkar batean, gaur egun Euskal Herriko hezkuntza sistemari argazki bat aterata ikusiko genukeena: sistema zatikatua, administrazioetan, sareetan, ereduetan eta lurraldeetan, hezkuntzako arlo nagusietan abiadura ezberdinetan doana.

Aurrekoan genioen Euskal Herriko hezkuntza sistema ahalbidetuko duen abagune bat –edo haratago, lege esparru bat– agertu bitartean, zorionez, hezigune askotan egunero aurre egiten ari zaizkiela inposaketa horiei guztiei. Eta aurre egiteko, leku egiten diete kudeaketa parte-hartzaileari, aniztasunari, pentsamendu kritikoari, sormenari, inklusioari, euskarari eta euskal nortasunari. Era horretara, aukera hobe baten zain, urratsez urrats, tokian tokiko esperientzia eta praktikarekin, XXI. mende honetan herri ez-normalizatu honek mundu globalizatuan aurrera egin ahal izateko eta, zergatik ez, hari ekarpena egin ahal izateko belaunaldi berriek behar duten hezkuntzaren zutoinak ezartzen ari gara.

Hezkuntzaren historiari begiratzuz gero, jabetuko gara euskal jendarteak desobedientziaren oinetakoak jantzi-ta egin duela bidean aurrera. Gaur egun, neurri batean hezkuntza euskalduna eta kalitatezkoa lortu badugu, joan den mendearen 60ko hamarkadan euskal jendartearen zati garrantzitsu batek, beren seme-alabentzat beste hezkuntza baten bila, Espainiak eta Frantziak indarrean zuten hezkuntza eredua desobedientziaren bidez arrakalatu zutelako da. Desobedientziaren bidetik

sortu zituzten herriz herri ikastolak, administrazioaren beraren eskolak ere pixkanaka euskalduntzeko.

Ez gara inoiz egon legeak noiz alde jarriko. Jendartea, hezkuntza arloan ere, administrazioaren eta legeen aurretik joan da, eta, ikusitakoak ikusita, aurrerantzean ere hala izan beharko duela dirudi.

Orain zenbait urte hezkuntza arloko hainbat lagun bildu ziren eta ariketa bat osatzen ahalegindu ziren: nork bere interesak alde batera utzi eta Euskal Herriak dituen ezaugarriak kontuan izanik, erronkei erantzuteko behar duen hezkuntza irudikatzen ahalegindu ziren herritar gisa. Ariketa hartatik sortu zen 2006an **Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa**, Nazio Garapenaren itzalean. Zatiketen gainetik, Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzen zuen akordio proposamena izan zen.

Akordio hark euskaldunon hezkuntza eskubideen dekalogoia jaso zuen. Eskubide horiek abiapuntutzat hartuta, gainera, publikotasunaren definizio berri

bat eta heziguneen arteko elkargune sare bat sortzeko proposamena barne bildu zituen.

Hezkuntza arloko eta jendarteko lagun askoren babesa jaso zuen akordioak, eta zenbait herrietan egin ziren hainbat saiakera. Udalbiltzaren ilegaltzazioak eta ondorioz Nazio Garapenaren desagertzeak indarrez hustu zuen ekimena. Baina ez omen da alferrik emandako urratsik, eta akordio haren testua eta mamia gainbegiratzuz ohartuko gara orduan jasotakoek gaurkotasunik galdu ez dutela.

Ondoren etorri zen, adibidez, porrot egin duela aspalditxo jakin arren, indarrean jarraitzen duen hizkuntza ereduak gainditzeko ikasle euskaldun elea nitzunak sortzeko proposamena. Horrek ere babes zabala izan zuen Hezkuntza komunitatean, artean ezagutu gabeko babesa, behar bada.

Herri hau martxan dago hezkuntza arloan ere. Haizea alde dugunerako prest izan behar dugu txalupa... lan batzuk, behintzat, aurreratuta dauzkagu. •



Sortzenek antolatutako Euskal Eskola Publikoaren jaia Nafarroan.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Iker Barandiaran

Gipuzkoarren kritikotasuna

Gaur egun bestelako lanak egiten baditut ere, neure burua kazetaritzat daukat, eta ez zait lanbide hutsala iruditzen, kontrakoa. Baina gizartean aspaldian lanbide hau gutxietsita dago, eta askok ihes egiten diote beraien lanbidea hala definitzeari. Sare sozialen erabilera masiboak ere eragin du horretan; eta zer esanik ez, jakina, hedabide askok –interes jakinengatik edo kosta ahala kosta gehiago saltzearen– jokatzen duten paper zikinak ere. Horiei gehitu behar zaie, sare sozialetan aritzen diren batzuen itxurakeria eta tontakeria. Ez da modernoa eta ezta *enrollatua* kazetaria zarela esatea. Puf! «Hori edozeinek egiten du», esaten dute. Bai, hala da, funtsean informazioa jaso, interpretatu eta idatziz edo beste euskarri batean ulergarri eta argigarri helaraztean datza. Baina teknologia ondo menderatu arren, egin daiteke ongi edo gaizki. Teknologiak lagundu dezake gehiago zabaltzen edo eragiten, baina muina ez da –hala sinetsarazi diguten eta batzuk erabat sinetsita dauden arren– hedadura eta zabalkundea, edukia baizik. Eta hori ez badago, modernitate horrek ez du askorik aportatuko. Lainoan galduko da.

Negargarria da askotan fede txar zein onez kazetariok egiten dugun mina. Eta txanponaren beste aldean ikargarria da egin dezakegun mesedea; uste baino eragin handiagoa daukagu, ahaztu ezin duguna. Horren haritik, inguru hurbilera erreparatuta, Gipuzkoan esaera unibertsal bat benetakoa dela egiaztatu ahal izan dut behin eta berriro: zuri buruzko konturen bat fede txarrez aldrebestu duelako hedabide horrekin haserre bazaude ere, «Diario Vasco» erosten jarraituko duzu. Egunkari honen eta bere jabe den Vocento enpresaren *amarillismoaren* estilo puruenean gertuan aspaldi bizi izan nuen adibide bat ekarriko dut hona: pertsona anonimo bat istripuan hil zen eta haren bikotekideak biak bizitako herrian lurperatu nahi zuen; gurasoek, aldiz, gorpua jaioterrira eraman nahi zuten. Bada, oihartzun publikorik gabeko familia baten kontu pertsonala zena egunkariko orrialde osoko erreportaje bihurtu zuten, «*El muerto se queda aquí*» izenburupean. Hori da Gipuzkoan gehien saltzen den egunkariaren lerro editoriala.

Eta zoritxarrez, egunkari horren salmenta emaitzak ikusita, joera horiek kutsatu egiten dira, ezbehar pertso-

nalei buruz ahalik eta detaile gehien ematearena, alajaina. Baita ere, albisteak, iturri eta kontrastei bizkarra emanda, bai ala bai argitaratzen lehena izatearren, oinarrizko zentzua eta kazetaritzaren kode deontologikoa –lotuta joan ohi dira– albo batera jaurtitzeko ohitura. Albiste edo dena delakoa argitaratzen lehena izate horrek ere nahikoa gogaitzen nau; eta lasterketa horretan gero eta hedabide gehiagok hartzen dute parte, batzuetan iparra ere galduta. Adibide sinpatiko bi ekarri ditut hona: «Aurten ere Olentzero xxxx izango da»; eta «Aurtengo Maritxu Kajoiko miraria honako hau izango da...». Hauek ez dira urrundik ere «Diario Vasco»-n irakurritakoa bezain ofentsiboak, intimitatearen kontrakoak, ezta gustu txarrekoak ere, ez dezala inork hori pentsa, baina erakusten dute ez dela derrigorrez jakin izanagatik guztia argitaratu behar; eta are gehiago, *primizia* hori ematearren mirari, sorpresa edo dena delakoa presatzearen lana bertan behera botatzen dutela.

«Diario Vasco»-ren erosleetak asko sinetsita daude berau irakurri eta erostea ekintza erabat apolitikoa –apartidista ere gehituko nuke nik– dela

Gipuzkoako hedabideen dekanoa denak, Francoren aurretiko eta aldekoak, garaietara egokituta mozarrotu bade ere, ez du inoiz lerro editoriala aldatu. Eta argi du noren alde, edo hobeto esanda, noren kontra egin nahi duen; hala jarduten du. Baina hori horrela izanda ere, berorren erosleetako asko sinetsita daude berau irakurri eta erostea ekintza erabat apolitikoa –apartidista ere gehituko nuke nik– dela. Eta, aldiz, «Deia» –ba ote dago inor hor?– edo «Gara» erosteak erakusten duela jarrera aktibo partidista bat. Donostiako kazetari handi bati behin entzun nion esaten Vocentokoa zela «*El periódico que cuenta que aquí no pasa nada*» eta erabat asmatu zuela uste dut. Horregatik, beste egunkari batzuk erostearen hautua egiten dugunoi jarrera kritikoa izatea leporatu dakigukeela uste dut. Kritikotasuna, kazetaritzak, bai eta pertsonok ere izan beharko genukeen dohain garrantzitsuenetako bat. •

Europako Pentsako Saria jaso berritan egon da GAUR8 Ander Izagirrerekin, hain gertukoa duen kolaboratzailearekin. Bere mundu idazkera eta ikuskera askotan arrimatzen dira gure leiho honetara, munduari luze-zabalean eta era berean zokotik begiratzeko. Kopenhagen (Danimarka) jaso du asteen ikerketa kazetaritzako European Press Prize saria hainbat hizkuntzatan argitaratu duen erreportaje batengatik. Kolonbiako talde paramilitarrei buruzko erreportajea da eta “El Pais” egunkarian argitaratu zuen gaztelaniaz, iazko martxoan. Gurean euskaraz joan den urrian argitaratu zen “Hildako gerrillariak fabrikatzearen negozioa” lana.

Kolonbiako kazetariak izan dituzu gogoan.

Bai, eta nabarmendu nahi nuke egiten duten lana. Egunero ari dira lanean gai oso gogorrek eta zailak argitara ateratzen eta, gainera, kanpotik joaten garenak eskuzabaltasunez hartzen gaituzte. Baina beraiek ari dira lan gogorrena eta arriskutsuena egiten. Lan oso ona egiten dute, oso ondo idazten dute, eta kanpotik goazenak aste pare baterako baino ez gara joaten bisitan.

Esku zabalik hartu zaituztela esan duzu.

Oso garbi daukat horrelako herri batera joaten naizenean ezjakin hutsa naizela. Saiatzen naiz dokumentatzen, kontaktuak topatzen, elkarrizketak antolatzen... baina batez ere gaiaz asko dakitenekin biltzen saiatzen naiz. Orokorrean oso jende eskuzabala izaten da. Kolonbiako erreportajeen kasuan, bertako kazetariak bideratu gintuzten ni eta Pablo Tosco argazkilaria. Tosco argentinarra da, Oxfamekin egiten du lan eta elkarrekin joan ginen istorio horren bila.

Hildako gerrillariak fabrikatzearen negozioaren atzetik zenbiltzaten zehatz?

Bitxia izan zen, berez helburu nagusia biolentzia sexuala gerra

IBILBIDEA Ander Izagirre (Donostia, 1976) ez da geldirik egotekoa. Munduko hamaika bazterretako istorioak jaso ditu eta beste hainbeste komunikabidetara ekarri, ikuskera propioz. Aste honetan **Europako Pentsako Saria** jaso du, eta lehendik zekarren zerrenda luzatu. 2001ean **Rikardo Arregi** saria. 2005ean kirol literaturako **Marca** saria. 2010ean lau sari jaso zituen: bidaia kontaketen **Essery** saria, **Trinidad Arroyo** kazetaritza saria, **Madrilgo Prentsa Elkartearen** saria eta **Manos Unidas**-en kazetaritza saria. 2011. urtean **Juan Gomis** kazetaritza solidarioko saria eta **Unibertsitate Complutenseko** Komunikazioa sari gaztea lortu zituen. Eta, 2013. urtean, **iRedes Letras Enredadas** izenekoa.



«Gai batera hurbiltzen naizenean garrantzitsuena nire ezjakintasuna onartu eta gaiaz dakitenen eskutik joatea da»

estrategia bezala nola erabiltzen den kontatzea zelako. GAUR8n argitaratuko genuen horri buruzkoa. Arreta eman zidan datu ikaragarri batek: ia 500.000 biktima zenbatuta zeuden biolentzia sexuala gerra estrategia bezala sufritu zutenak eta apenas zegoen salaketarik, epaiketarik eta zigorrik. Eta Kolonbiako gure asmo nagusia hori izan zen. Beste erreportaje hau, hildako gerrillariak fabrikatzearen negozioarena, bidean topatutako beste hari bat izan zen. Eta hari horri tira egin genion.

Pertsonen istorioak izaten dira zure erreportajeen ardatza, emozioak esnatzen dituztenak. Bai, pertsonenak bai, baina emozioekin eta sentimenduekin kontu handiz ibiltzea gustatzen zait eta saiatzzen naiz gauza melodramatikoak ez egiten, arriskua baitago biktimekiko begirada errukizko bat izatekoa. Nik uste dut batez ere beraien borroka eta adorea direla nabarmendu beharrekoak.

Egia da istorio pertsonalak eta zehatzak bilatzen genituela, horietan islatzen delako politika abstraktu bat; Uriberen garaian terrorismoaren kontrako lelopean giza eskubideen kontrako eraso latzak egin ziren, milaka biktima egon ziren eta horien istorioak kontatu behar dira. Gu zoritxarreko protagonista horien bila joan ginen.

Biktima horien duintasunaz ari zara.

Bai, gainera ez da beharrezkoa dramatizatzea edo testuei emozio kargarik jartzea. Istorioak berez dira oso gogorrak eta ni saiatzzen naiz ahalik eta modu zuhurrenean kontatzen, emozioak kargatu gabe. Exajerazioak kalte egingo lioke errealitate horri, berez dauka drama, eta ez dago nabarmentzeko inolako beharrik. Gauzak diren bezala kontatuta nahiko gogorra da.

**Saritutako erreportajeko protagonistei emango diezu saria-
ren berri, ezta?**

Bai, nik jakinaraziko diet. Kolonbiak badauzkat beraiekin harreman estua duten kontaktuak eta

helaraziko diet. Lehenago ere erreportajea gazteleraz, zuekin euskaraz eta, ondoren, italieraz argitaratu denean horren berri eman diet. Soachako ama horietako batek, Luz Marina Bernalek, bere etxean gordetzen ditu mundu osoko albisteak eta erakutsi zizkigun. Badakit esker-tzen dutela beren istorioaren berri ematea, oso eskuzabalak izan ziren beren etxeko ateak erabat zabalduz eta ni saiatzzen naiz ordainetan albiste hauen berri ematen.

Munduan barna istorio bila dabilen kazetariarentzat zein lantresna da garrantzitsua?

Niretzat jakin-mina, bokazioa, jakiteko gogoa dira tresnarik garrantzitsuenak. Hortik aurrera teknikak ez dauka misterio handirik. Gaur egun informazioa topatzea eta jendearekin harremanetan jartzea inoiz baino errazagoa da... Baina nik garbi daukat gai batera hurbiltzen naizenean garrantzitsuena nire ezjakintasuna onartzea eta gaiaz dakitenen eskutik joatea dela. Eta saiatzzen naiz emandako laguntza eskertzen. 'Besteen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke' esaldi hori ez da formalismo hutsa, erabat literala da.

Kazetaria, bidaiaria, idazlea. Juxtu Kopenhagera joan aurretik «Beruna patrikan» zure liburuaren euskarazko bertsioa aurkezten ari zinen. Mila aurpegi dituen kazetaria zara.

Finean niri idaztea gustatzen zait, eta istorio erakargarriak topatzea. Ez naiz gehiegi espezializatu, interesatzen zaizkidan istorioak idazten ditut. Txirrindularitza nire pasioa da, iruditzen zait idazteko lehengai ona dela eta Tourrak joko handia ematen duela. Bestelako gai serioagoak ere interesatzen zaizkit... tonu oso desberdinetan aritzen naiz idazten.

Ez dakit, ez dut asko pentsatu horretaz, baina agian tonu aldaketa horrek laguntzen dit burua freskoago mantentzen. Baina, auskalo, momentuan bidean agertzen denari eusten diot eta kito.

Nola aukeratzen dituzu istorioak eta zure hurrengo bidaiaren helmuga?

Aspaldi autonomoa naiz –horrek desabantaila argiak eduki ditzakeen arren–. Nik nire borondatez erabaki dut nire kasara lan egitea eta horretarako arrazoi nagusia da askatasunez, kapritxoaz eta interes hutsez aukeratzen ditudala istorioak. Batzuetan han edo hemen irakurri dudalako, beste batzuetan proposatu didatelako, baina normalean nik erabaki ahal izaten dut zein gai hautatu eta zenbat denbora eskaini, niretzat oso gauza garrantzitsua dena. Normalean ez dut nagusirik izaten noiz bueltatuko naizen edo lan bat noiz bukatuko dudan galdetuz. Niretzat pribilegio bat da gaiak aukeratu ahal izatea nire interesen, gustuen edota intuizioen arabera. Hori niretzat askatasun handia da eta hori da kazetari autonomo izateko nire arrazoi nagusia.

Baina gero erreportaje horiek saldu egin behar dira argia ikus dezaten.

Horrek energia asko eskatzen du eta batzuetan nekatuta sentitzen naiz lan horretan. Diru aldetik ere askotan ez duzu kobratzen hegazkina ordaintzeko ere. Baina, tira, bokazio handia daukat eta alde ekonomikoa edo profesionala bestela moldatzen dut. Nik argi daukat bestelako lanak egin behar ditudala, bestelako enkarguak, bizirauteko; gida turistiko bat idatzi, geologo baten lana editatu... horrelakoak egiten ditut. Ez dira kazetaritza lanak, baina gustura egiten ditut. Argi daukat hanka bat kazetaritzatik kanpo eduki behar dudala, lan horiek ematen didatelako dirua gero gustuko ditudan kazetaritza proiektuetan gastatzeko. Eta tarteka horrelako sari bat etortzen bada (10.000 euroko saria da), bada, moldatzen naiz. Finean sariak niretzako finantzaketa bide bat dira, hurrengo proiekturako finantzaketa. Sariaketa askora aurkezten naiz horregatik, eta batzuk lortu ditut. Oraingo honetan ere bi lan aurkeztu ditut, bata Txernobyli buruzkoa

ANDER IZAGIRRE KAZETARIA

Idaztea gustatzen zaio, interesatzen zaizkion, gustatzen zaizkion eta batez ere jakin mina pizten dioten istorioak idaztea.

Batzuetan etxe ondoan topatzen ditu eta, beste batzuetan, askoz urrunago.

Baina beti asmatzen du istorio horiek irakurleari gerturatzen.

amagoia.mujika@gaur8.info



«Niretzat pribilegio bat da gaiak aukeratu ahal izatea nire interesen, gustuen edota intuizioen arabera. Hori niretzat askatasun handia da eta hori da kazetari autonomo izateko nire arrazoi nagusia»



©TARIQ MIKKEL KHAN

eta, bestea, Kolonbiakoa.

Saria hurrengo proiekturako, bidaiarako izango da?

Batez ere sari horrekin denbora pixka bat erosi nahi nuke. Hila-bete batzuetan lasai egon nahiko nuke, konpromisorik eta enkargurik hartu gabe, zintzilik ditudan gauza asko idazteko.

Bizimodu berezia da zurea. Bidaian hara eta hona, gustatzen zaizuna egiten... idealizatua al dago?

Nik gustatzen zaidalako egiten dut, baina badago idealizazio bat. Jendeak bidaia plazerarekin lotzen du. Niretzat bidaia plazerare ere bada, baina batez ere lana

da, eta lan gogorra, askotan etxean egiten dudana baina exijenteagoa. Egia da aukera dudanean turistarena ere egiten dudala, niri ere gustatzen zaidalako hori. Baina, tira, gustuko nekeak direnez, pozik nago.

Hala ere, normalean ez zara istiluak puri-purian dauden tokietara joaten, ezta?

Ez, istilu gordinetan ez naiz inoiz ibili, ez dut izan bokaziorik edo adorerik horietara joateko. Gainera, niri istorio mantsoagoak gustatzen zaizkit, ez eguneroko albisteak. Beste kazetaritza mota bat dela esango nuke, gauzak gertatu eta handik denbora batera ematen dena. Txernobyl-

goa, adibidez, niretzako oso lan polita izan zen; pentsa, duela 30 urte gertatutako gertaera baten harira jendea nola bizi den ikustea. Horrek ez dauka egun bate-tik besterako presarik, baina istorio horiek ere hor daude. Eta ni erosoago sentitzen naiz istorio horietan.


Internetek eta sare sozialek ematen dituzten aukerak baliatzea gustatzen zaizu. Zure istorio patxadatsuek ba al dute tarterik sare sozial bizi horietan?

Sare sozialak istorio luzeak zabaltzeko oso tresna baliagarriak dira. Batzuetan esaten da; ‘140 karakteretan zer kontatu daiteke?’. Tira, 140 karakteretan ha-

mar orrialdeko erreportaje bate-rako lotura jarri daiteke. Ez du gehiengoak irakurriko, baina batzuek bai, eta hori beti izan da horrela. Esperientzia pertsonaletik badakit komunikabide digitaletan erreportaje luzeak argitaratzen ditudanean badela jendea irakurri, komentatu eta partekatzen dituen. Nik uste dut ez dela bateraezina eta tresna horiek ondo erabiltzen jakin behar dela. Tontakerietarako ere balio dute, baina lanak zabaltzeko eta eza-gutzera emateko oso tresna baliagarriak iruditzen zaizkit.

Irakurketa sakona eta patxada-tsua aldarrikatu beharra dago. Horren aldekoa naiz ni. Baina ez

naiz batere ezkorra zentzu horretan, badira ekimen berriak irakurketa eta kazetaritza mota hori sustatzen dutenak. Esaterako, nik harreman estua daukat ‘Libros del K.O.’ argitaletxearekin (www.librosdelko.com), hor argitaratzen ditut nik liburuak, eta kazetaritzako liburuak dira. Kazetaritza lan bat argitaratu deza-kezu 200 orrialdeko liburu batean, eta interesgarria da. Ni baikorra naiz, norberaren eskue-tan dago aukeraketa eta sare so-zialak tresna eraginkorrak dira. Tresna horiek nola erabiltzen di-ren da gakoa. Baina gure buruari ezin diogu tranpa egin eta esan ‘ez, gaur egun ez da irakurtzen Twitterren erruz’.



IKUSMIRA

ZERUARI ERE JUSTIZIA ESKE

Galdutako semea gogoan, negar malkoek ihes egiten diete itxaropena galdu nahi ez duten begietatik. Tan-tek irrist egiten dute behera, zeruari so egin eta justizia aldarrikatzen duten bitartean. Justizia, Iñigo Cabacasentzat, orain hiru urte futbol partida ikustera joan eta inoiz itzuli ez zen semearentzat. Justizia, Rosa Zarrentzat, 1995eko ekainean Donostian heriotza aurkitu zuen ama, senitarteko eta emakumearentzat. Justizia gomazko pilotakadek zauritutako lagun guztientzat. Eta bereziki, justizia, gomazko pilota beltzak polizia bihozgabeen eskuetatik desagertu eta jolasguneetan umeen irriak eragiten dituzten puxika koloretsuak izatera itzul daitezen.

oihana.llorente@gaur8.info



IDIAZABAL ETA EROSKI

Gaztaren salmentak bizkortzen ari dira eta kooperatibak badu horretan zerikusia

 **KONTSUMOA** / Maider Iantzi Goienetxe

Eroskiren eta Idiazabal Jatorri Deituraren arteko itunak kontent utzi ditu denak eta hori ez da erraza; hala adierazi zuen Gotzon Elizburu Eroskiko Aliantza Estrategikorako zuzendariak Ordiziako Artzain Egunean, jaki preziatu hau posible egiten dutenen omenaldia jasotzean.

Eroski kooperatibak eta Idiazabal Jatorri Deiturak «betidanik» egiten duten lanari «formaltasuna» eman nahi izan diote iaz sinatu zuten hitzarmenaren bidez. Hala, borondatetik konpromisora igaro dira eta arlo

bakoitzean ze ekintza egin zehazten doaz. Gotzon Elizburu kooperatibako Aliantza Estrategikorako zuzendariak GAUR8ri azaldu dienez, 20-25 lan ildo dituzte eta hiru hilabeteen behin bildu eta balorazioa egiten dute, oztopoak eta emaitzak aztertuz.

Lelo bat erabiltzen omen dute lankideen artean (“Idiazabal ez da fabrikatzen, egin egiten da”). Izan ere, gazta estimatu hau produktu berezizat hartu eta berezitasun hori lantzen dute. Bilatzen dutena ez da gazta berdina eskaintzea, goi mailako gazta bat merkaturatzea baizik.

ZAPORE DESBERDINAK

Ez dira fabrika batera joaten erratera gazta guztiak berdinak egitea nahi dutela; gaztagile ugariengana joaten dira marka merkaturatzera. Horregatik, erosleak dendako apaletik bi Idiazabal hartzen dituenen hagitx zaila izanen da artzain berarenak izatea, ez daude bi gazta

berdin gainera, eta kontsumitzailerak desberdintasunak sumatuko ditu, zapore bereziak. Elizburuk dio pauso garrantzitsua dela hau Eroskirentzat eta xede batekin eman duela: gazta egiten duten artzainei ahal duten balio guztia ematea.

Kooperatibak Estatu espainiar osoan banatuta dituen bi mila dendetan, bezeroei Idiazabal gazta zer den eta zer erran nahi duen azaltzen diete. Jakia ezagutzen eta bereizten laguntzen diete, apaletako eskaintza zabalaren artean ez nahasteko.

Dagoeneko plazan da Idiazabal berria; joan den astean aurkeztu zuten Ordiziako Artzain Egunean. Berri on bat ekarri zuten merkatu honetara: gaztaren salmentak bizkortu dira eta, honekin batera, esnearen prezioak goititu eta esnegileen lanari balio handiagoa ematen zaio.

2014AN NORANZKOA ALDATU

Jose Mari Ustarroz Idiazabal Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko presidentek esplikatu zuenez, 2010ean jo zuen goia gaztaren ekoizpenak eta hortik aitzinera beherantz joan ziren esnegintza eta gaztagintza. 2014an, berriro aldatu zen noranzkoa, gorantz doaz gazta eta esnea eta sektore honetan dabilzanek etorkizuna ikusten dute.

«Artzainek beste aurpegi bat, beste ilusio bat dute eta esne ekoizleak gehiago estimatzen dira, urte batzuetan nahiko baztertuta egon ondotik», adierazi zuen Ustarrozek Artzain Egunean ekitaldian. Agertu zuenez, «stock» zati bat ere saldu dute eta artalde berriak daude.

Eta, indartze honetan, Eroskik ere badu zerikusia, egin zioten omenaldian aitortu ziotenez. Kooperatiba da lehen banatzailea sektorearen garapenean eta irau-

Ordiziako azokan bildu ziren bisitariek urrea baillitzan eraman zuten Idiazabal gazta berria etxera. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



{ Jateko
tenorea }

NEGUA JOANDA, PLAZARA

Ardia erditzen denetik gazta mahai gainean izateraino hilabete luzeak igarotzen dira. Aurten bezala, negua luze joaten bada ardiak etxolan egoten dira larrera atera ezinik. **Udaberriarekin batera**, belaietara irten dira eta artzainek plazara atera dute gazta berria. Azkenean sal dezakete. Gustuen arabera da, baina Idiazabal Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko presidenteak dioenez, **lau-sei hilabete** ontzen uztea komeni da, gaztak bere nortasuna hartzeko.



Jendetzaren artetik igaro ziren artaldeak, transhumantzia, hau da, mendira igo aurretik herrian egiten zuten itzulua, oroituz.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

penean laguntzeko halako akordio bat egiten. Honen bidez, 2014an %14 Idiazabal gazta gehiago erosi zuen, guztira 129.000 kilo baino gehiago. Gaur egun, Idiazabal Jatorri Deiturako gazten %10 inguru saltzen du.

Iaz, %10,5 gehiago saldu zuten produktu horretatik, eta ez Euskal Herrian bakarrik, kanpoan

ere bai, bereziki Katalunian, Caprabo saltokien bitartez. Ustarrozek azpimarratu zuen Jatorri Deiturarentzat garrantzitsua dela kanpoan ere zabaltzea.

SELEQTIA MARKAREN BARRENEAN

Omenaldian goraipatu zuten kooperatibak «ahaleginak eta bi» egiten dituela saltokietara hurbi-

leneko artzainen produktuak eramateko. Gainera, Seleqtia marka propioaren barnean sartu du Idiazabal gazta, bere kalitatean duen konfiantzaren erakusgarri.

Eroskik harreman komertziala du Idiazabal Jatorri Deiturako 30 bat gazta ekoizlerekin. Gehienak enpresa ertainak eta txikiak dira, gazta eskuz egiten dutenak. Gotzon Elizbururen arabera, haiekin batera lan eginez, bi elementu uztartzen dituzte: «Kontsumitzaileek tokiko produktuen autentikotasunarekin duten interes gero eta handiagoa eta tokiko enpresa txiki askoren profesionalizazioa eta hazkuntza».

2014an, bi kanpaina monografiko egin zituzten euskal kulturaren eta gastronomikoaren ikur den produktu hau indartzeko. Hitzarmenaren atzean, Eros-

kik Lakuako Gobernuarekin eta Nafarroako Gobernuak INTIA-Reyno Gourmetekin sinatutako itunak daude; horiekin, tokiko elikagaien industria eta ekoizpen ehunaren aniztasuna indartzea dute helburu.

Urteko lehen azoka berezian, Ordiziako Artzain Egunean, kaleak bete ziren artaldeak artzainekin pasatzen ikusteko, postuetan Goierriko produktuak dastatu eta erosteko, eta merkatuaz gozatzeko. Udaletzeko aretoa ere jendez gainezka egon zen gazta berriaren aurkezpenean eta omenaldietan.

Igor Eguren alkateak adierazi zuenez, babesa erakusten du horrek, baina ez da aiantzi behar ospakizuna urte osoko eta aunitzetako lanaren azaleratzea dela eta babesak ere halakoa izan behar duela, iraunkorra.

Kontsumitzaileek tokiko produktuekin duten interes gero eta handiagoa eta tokiko enpresa txikien profesionalizazioa eta hazkuntza uztartzen dituzte harreman komertzialek

«Artzainek beste ilusio bat dute eta esne ekoizleak estimatuagoak dira», adierazi zuen Idiazabal Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko presidenteak



SASOIKOA

IDIAZABAL GAZTA



2001ean zorigaiztoko istripu batek ezker hanka ezgaitu zion Rakel Mateori, ordutik kirola hartu zuen lagun. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

infraganti

RAKEL MATEO

2001. urtean lanean ari zela 100 kiloko karga erorita ezker hanka ezgaitua geratu zitzaion Rakel Mateori. Halere, 2010ean bizikleta batera igotzea erabaki zuen, nahiz eta ordura arte kirolarekin apenas izan loturarik. Eskuin hankarekin lehen pedalkada haiek eman zituenetik hesiak eraitsiz joan da apurka-apurka, eta, orain, paratriathloian goi-mailan diharduela, Rio de Janeiroko Joko Olimpikoak ditu begiz jota.

Bizitzak etengabe jarri du ataka zailen aurrean Rakel Mateo (Mungia, 1975), baina adore, kemen eta esfortzu handiarekin ataka horiek guztiak gainditzea lortu du. 12 urterekin anorexia diagnostikatu zioten eta 10 urte luzez paira-

tu behar izan zuen gaixotasun hori. Etapa hartan oso momentu gogor eta zailak bizitu zituen: «Hasieran ez zara jabetzen gertatzen zaizunaz eta asko kostatzen da egoera onartzea. Dena dela, pauso hori ematea ezinbestekoa da gaitzari konponbidea jartzeko. Behin hori eginda, nire kasuan behintzat, okerrera

familia eta nire inguruko jendea sufritzen ikustea izan zen». Zorionez, familiaren babesarekin, medikuen laguntzarekin eta lan handiarekin gaixotasuna gainditzea lortu zuen, eta bizimodu berri bati ekiteko aukera izan zuen. Haatik, zoria ez zuen lagun izan eta bere bizitzan lehen eguzki printzak agertu orduko,

ekaitza gailendu zen oster. Izan ere, 2001ean zorigaiztoko istripu batek ezker hanka ezgaitu zion Mateori. Lanean ari zela 100 kiloko karga erori zitzaion gainera eta hasieran hankaren mugikortasuna berreskuratzeko esperantza bazuen arren, hara eta hona mediku batetik bestera ibili ostean, aurreikuspenik ezkorrenak baieztatu ziren azkenean. «Bizitza erabat aldatu zitzaidan. Ni oso neska mugitua nintzen eta bat-batean erabat mugatuta geratu nintzen. Buruari buelta asko eman nizkion eta behin eta berriro galdetzen nuen ea zergatik tokatu zitzaidan niri halakorik» kontatu du.

Pixkanaka baina errealtatea onartu eta aurrera egitea lortu zuen. Horretarako, kirolean topatu zuen ihesbide nagusia. Izan ere, istripua izan zuenetik gertuko lekuetara oinez mantso-mantso joateko gai zen arren, urrunago zeuden lekuetara joateko kotxean eraman behar izaten zuten ezinbestean. Gauzak horrela, egoera horrekin apurtzeko helburuz, bizikleta gainera igo-

tzea erabaki zuen. Hala, bere anaiaren bizikleta zaharra denda batera eraman eta ezker hankako pedala kentzeko eta bere hanka ezinduarentzat euskarri bat jartzeko eskatu zuen. Halere, lehen pedalkada haiek ez ziren oso gozoak izan: «Hasieran dena puskatzen nuen eta nire gorputzeko giharrek asko sufritzen zuten». Pixkanaka, ordea, bizikletari egokitzapenak eginda gero eta erosoago sentitzen hasi zen bi gurpilen gainean. «Gogoan dut bizikletarekin herritik haratago joan nintzen lehenengo eguna. Tontakeria bat dirudi baina bizikletan ibiltzen nindoan bitartean txoriak kantari entzutea ikaragarria izan zen niretzat. Kotxez eramaten nindutenean ezin nituen gauza horiek sentitu eta txikikeria hark sorturiko ilusioak aurrera jarraitzeko indarra eman zidan», azaldu du.

EZUSTEAN LEHIARA

Bizikletaren gainera igotzea erabaki zuenean, uneoro besteen mende egon gabe bere kabuz moldatzen hastea besterik ez zuen buruan. Halaber, pauso hori emanda sortu zitzaion bestelako kezkarik. Izan ere, eskuin hankarekin soilik ibiltzen zenez, ez zen erabat seguru sentitzen, eta arduratu egiten zuen bere erruz istripuren bat sortzeak, eta, badaezpada, bizikletan ibiltzeko lizentzien eta seguruen gaineko informazioa eskuratzeko erabakia hartu zuen. Galdezka hasita, konturatu zen Bizkaian kirol egokitua praktikatzen zutenentzat laguntzak zeudela eta Saiatuz fundazioarekin harremanetan jarri zen. Fundazioko kideek ikusi zuten bizikletan hanka barrarekin ibiliagatik oso ondo moldatzen zela, eta lehiaketa batean parte hartzeko proposamena luzatu zioten: «Hiru etapako proba bat zen eta ezinezkoa ikusten nuen hura amaitzea. Halere, erronkazalea naizenez baiezkoa eman nuen eta nire ezustekorako dena egiteko kapaz izan nintzen». Egun hartan erakutsitako gaitasuna mugarri izan zen eta orduanik aurrerapausoak emanaz eta gero eta erronka zailagoak gaindituz joan da Mateo. Txi-

rrindularitzan ez ezik, duathloian eta triathloian ere badihar du egun, eta goi-mailan gainera. Horren adierazle da bere garai-pen zerrenda luzea: 2014an, duathloiko eta triathloiko Espainiako Txapelketak, eta Madrilen jokaturiko Serie Mundialetan urrezko domina eskuratu zituen triatloian, besteak beste. Munduko rankingeko 6. postuan amaitu zuen urtea.

Aurtengo denboraldia ere gorputzaldi ezin hobearekin hasi du. Martxoaren 1ean urrezko domina eskuratu zuen Hegoafrikan jokaturiko triathloian eta 12 egun beranduago 2. geratu zen, Australian jokaturiko lasterketan: «Nahiz eta garaipena lortu ez, Australiakoa da momentuz korritu dudan lasterketarik bereziena. Munduko rankingeko lehen sailkatu Hailey Danisewicz baino ez zen izan ni baino gehiago. Gainera 3 minutu besterik ez zidan atera eta horrek erakusten dit onenekin lehian aritzeko kapaz naizela». Azken bi emaitza horiekin, halaber, koxka bat gora egin du Mateok eta munduko bosgarrena da orain.

Suitzan eta Chicagon, hurrenez hurren, jokatu diren Europako eta Munduko Txapelketak ditu helburu denboraldi honetarako, baina etorkizunari begira, 2016ko Rio de Janeiroko Joko Olinpikoekin egiten du amets. Horretarako, munduko rankingeko lehen hamarretan egotea derrigorrezko baldintza da eta momentuz behintzat gauzak primeran doazkio, nahiz eta oraindik asko geratu, eta, ondorioz, lanean jarraitu behar duen.

BERE GARAIPENAK, DENEN GARAIPENAK

Goi mailan ibili nahi duen kirolari ororen moduan, gogor entrenatu behar izaten du Rakel Mateok. Duela urtebetera arte, lan hori guztia bere kabuz egiten zuen baina, orain, prestaketa lanetan laguntzen dion jende mordo du inguruan. Joseba Cercas da igeriketan gidatzen duena eta lasterkako eta bizikletako alorrak berriz, Milos Maillolekin lantzen ditu. Bizikletan sentitzen da erosoan eta bertan lor-

tzen ditu denborarik onenak. Igeriketan ere garapen ikaragarria izan du, nahiz eta hastapean zailtasun handiak izan zituen: «Neoprenoarekin igeri egiten dudadenan hanka txarrak flotatu egiten du, baina neoprenorik gabe zertxobait hondoratu egiten da, eta bero handia egiten duenean desabantaila handia da neoprenoa eramatea. Beraz, postura berezi batzuk landu behar izan ditut neoprenorik gabe hanka bere lekuan mantentzen ikasteko». Zailtasun handienak, ordea, lasterka egiterakoan ditu. Izan ere, muletak erabili behar izaten ditu eta «hankekin baino eskuekin egiten dut lasterka» kontatu du barrez. Bera da modu horretan lehiatzen den partaide bakarra. Gainontzekoek hanka kendua dutenez, protesia dute eta, hortaz, bi hankak baliatzen dituzte.

Rakelen ezaugarriak bereziak direnez, lehian erabiltzen duen bizikletak bere ezaugarrietara egokituta egon behar du, eta horretaz arduratzen da Tomas Perezagua kataluniarra. Tomasek Rakelen istoriaren berri izan zuen eta laguntzea erabaki zuen trukean ezer eskatu gabe: «Niretzat zerutik agertu den aingeru baten modukoa da. Ez dugu elkar ezagutzen, telefonoz bakarrik hitz egin dugu gure artean eta beti dago laguntzeko prest. Gaur egun entzuten diren gauzeekin gezurra badirudi ere, jende on asko dago munduan. Ez dakit nola eskertuko diodan niretzat egiten duen guztia». Elkar ez ezagutzea zailtasun gehigarri bat da lan egiteko orduan. Izan ere, Tomasek argazkien eta Rakelek ematen dizkion datuen arabera egiten ditu egokitzape-

2014an duathloiko eta triathloiko Espainiako Txapelketak eta Madrilen jokaturiko Serie Mundialetan urrezko domina eskuratu zituen. Munduko rankingean 6. postuan amaitu zuen

Beharrezko laguntza ekonomikoa lortzea du orain buruhauste nagusi. Bidaientzako bekarik edo babeslerik topatu ezean, ezinezkoa izango du nazioarte mailako txapelketetan lehiatzea

nak, eta, argi dago, lana ez dela batere samurra. Dena den, «artista bat da eta beti asmatzen du». Muletak berriz, normalak dira. Heldulekuetan zinta batzuk jarrita ditu eskuak ez zartzeko baina horretaz aparte ez dute bestelako berezitasunik.

Halaber, Saiatu fundazioak, Mungiako udaletxeak, Abendaño & Bilbao Abogados, Osatu fisioterapiak, David Herrero eta Lantegi Batuak-ek ere egiten dute haien ekarpena. Lantegi Batuak da, hain zuzen, Mateoren lantokia eta eskuzabaltasun handiz jokatzeko ari da. Otsailera arte goizeko 4:30etan jaiki eta 6:00etatik 14:00etara 8 orduko lanaldia burutzen zuen egunero. Lasterketetara joateko berriz, bere jai egunak baliatu behar izaten zituen. Orain, aldiz, kirol arloan lorturiko emaitzak ikusita, eta Joko Olinpikoak bistan izanda, enpresak Rakel babestea erabaki du eta, bere lehiaketen arabera malgutasunez molda daitekeen egutegi bat ahalbidetzeaz gain, eguneroko lanaldia 5 ordura murriztu dio, hobeto entrenatu dezan eta atsedenerako tarte handiagoa izan dezan.

Gauza horiek guztiak aintzat hartuta, Mateoren esanetan, bere garaipenak ez dira bereak soilik, bere inguruan dauden eta laguntzen duten pertsona guztienak baizik: «Egia da lasterketak nik egin eta irabazten ditudala, baina Cercosen eta Millolen entrenamendurik gabe, ez nukeen eman dudan aurrerapausoa emango; Tomasen egokitzapenik gabe bizikletan ezin nuke behar bezala lehiatu; ematen dizkidaten masajeak ere ezinbestekoak dira ondo erreku-peratzeko, eta zer esanik ez diru laguntzez eta lantokian ematen dizkidaten erraztasunez. Beraz, horregatik diot nire garaipenak nire ondoan dagoen talde osoarenak direla. Haiek gabe ez nukeelako ezer lortuko».

Mateok jasotzen dituen laguntza gehienak bolondreski laguntzen duten pertsona anonimo eta babesle pribatuenak dira. Espainiako Triathloi Federaziotik jasotzen duen babesa, aldiz, oso bestelakoa da. Munduko edo Europako txapelketa-

ko bidaiak soilik ordaintzen dizkiote eta gainerako txapelketa guztiak bere poltsikotik ordaindu behar izaten ditu. Eta kontu jakina da, Munduko edo Europako Txapelketarako txartela lortzeko ezinbesteko baldintza dela gainerako lehiaketetan emaitza onak lortzea eta beharrezko puntuak batzea. Alegia, ezinezkoa da bi txapelketa nagusietan izatea aurretik lan on bat egin gabe, eta horretarako egin behar diren bidaietarako dirua behar da. «Estatu Batuetako eta Japoniako triathletek bidaia guztiak ordainduta dituzte eta laguntzaileekin joaten dira, eta lehiatzeaz baino ez dira aduratzten. Nik berriz, dena nire kabuz egin behar izaten dut».

Beharrezko laguntza ekonomikoa lortzea da orain Mateoren buruhauste nagusia. Izan ere, kirol arloan gauzak primeran joanagatik, bidaiak ordaintzeko bekarik edo babeslerik topatu ezean, ezinezkoa izango du nazioarte mailako txapelketetan lehiatzea, eta, ondorioz, ezingo du Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetarako txartela lortu. Zentzu horretan Bat, Basque Teameko bekaren esperoan dago. Eskaria egina du eta erantzunaren zain dago. Lortuz gero, bidaiak ordaintzeko gastuen arazoa erabat konponduko ez litzatekeen arren, kirolean burubelarri jarduteko aukera izango luke ziurrenik.

Momentu honetan bere kirol garapena bere esku ez dauden baldintzen menpe egonagatik, baikor da Mateo eta esperantzaz begiratzen dio etorkizunari. Izan ere, une malkartsuak atzean utzita orain ari da benetan bizitzaz gozatzen kirolari esker, eta bere hitzei ilusioa darie: «Istripua izan aurretik nire bizitza ez zen normala. Betidanik izan ditut arazo pila bat eta kirolari esker bizitzak beste aukera bat eman dit. Orain zoriontsua naiz eta egungo bizimodua ez nuke ezerengatik aldatuko. Ea denak bere bidetik jarraitzen duen eta Joko Olinpikoetan izateko aukera dudana. Ikaragarria litzateke niretzat, hori dut amets».

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen arreta eragin duten gaietako batzuk:

> Spock

Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiaren eta Spock kapitainaren antz nabarmenak gure mugak gainditu eta Ameriketako Estatu Batuetan egiaztatu dute. Izan ere, New Yorkeko webgune batek, Quartz ospetsuak, Ibarretxeren argazki bat erabili du Star Trek sagako pertsonaiari buruzko albiste batean. Argazkia, zehazki, EAJk 2009ko inauterietan egindako ekitaldikoa da eta EAJko kideak, «vulkaniar agurra» egiten ari dira, Spockek agurtzeko zuen modu bera.

> Lurreratzea

Larrialdietako lurreratzea egin behar izan du aste honetan Alaska Airlines enpresako hegazkin batek Seattle-eko aireportuan, langile bat bodegan lo geratu eta aireratu ahala ateari kolpeka hasi deanean. Zaratak entzun orduko, pilotuak lurreratzeko agindua eman zuen, aireratu eta 14 minutura. Presioa eta tenperatura kontrolpean dituzte hegazkinaren bodegan ere, baina, badaezpada, langilea ospitalera eraman dute, azterketa medikoa egin diezaioten.

> Sanchez

Entzutetsua izan da oso Pedro Sanchez PSOEko idazkari nagusiaren hanka-sartzea. Izan ere, PPK bultzatutako abortuaren erreformaren aldeko botoa eman du, 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei gurasoen baimenik gabe haurdunaldia eteteko aukera ukatuz. Barkamena eskatzeko, Twitter sare sozialeko kontua erabili du eta 18 urte-tik beherako emakumeen askatasunen defentsarekin duen konpromisoa berretsi du, baina sare sozialetan bolobolo dabil bere akatsa.

> Google

Googlek Interneteko bilatzailean bere produktuak lehenesten dituela uste du Europar Batzordeak eta monopolioaren kontrako arauak haustea egotzi dio ofizialki. Android sakelakoe-tarako sistema operatiboaren inguruko ikerketa ere abiatu-ko duela iragarri du Europar Batzordeak. Bost urte dar-matza Bruselak Googlen mo-nopolioaren kontrako jarduna ikertzen. Google ez dator bat eta erabiltzaileek «inoiz baino aukera gehiago» daukabela adierazi du.

> Etorkin

400 bat etorkin desagertu di-ra Mediterraneoko uretan, Italiara iristeko ahaleginetan ari zirela. Save the Children gobernuz kanpoko erakunde-ak jakitera eman duenez gai-nera, litekeena da umeak iza-tea haietako asko. Italiako kostazainek 8.500 bat etor-kin erreskatatu dituzte ira-gan ostiraletik, Iheslariantza-ko Nazio Batuen Goi Mandatariak (UNHCR) jak-i-narazi duenez. Tragedia be-rriak saihesteko Mediterra-neoan zaintza areagotzea eskatu du honek.



KUTXATEKA.COM

GERO ETA GUTXIAGO HEGAN EGITEKO

Lehendabizi esertzen ikasi nuen. Hasieran, buruak agintzen zidan norantz erori; aurrerantz batzuetan, atzerantz besteetan. Eta ubeldua txandaka ibiltzen zen kopetatik garondora. Gutxinaka, katuka ibiltzen artista hutsa bihurtu nintzen. Gero, zutik, koskatik koskara. Korrika gero, estropezuka. Orain bizikletan ibiltzen erakutsiko omen didate. Zor-tzen nago, gero eta gutxiago falta zaidalako he-gan egiteko. **Vicente MARTIN. FOTO CAR. KU-TXA FOTOTEKA**

EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Datu multzo ikaragarrak sortu, jaso eta azter-

**Erronkak asko izanik ere, baditugu ja-
da eguneroko bilakatu zaizkigun
hainbat aplikazio datu andana horiek
aztertzetik eskuragarri ditugunak:**
Google beraren itzulpen automatikora-
ko aplikazioa, eskaintza orokorrak egi-
tetik bezero bakoitzari egin ohi dituen
erosketen arabera eskaintza pertso-
nalak egiteko supermerkatuentzako
aplikazioak, trafikoaren kudeaketarako
aplikazioak... Adituek diotenez, norba-
nakoari egokitutako mediku tratamen-
duak ere hortik etorriko dira. Txanpo-
nak, ordea, beti ditu bi alde, eta,
txanponaren beste aldean, pribatutasu-
na galtzearen arriskuak daude. Zalan-
tza gabe pribatutasuna bermatu beharra
dago arau egokiak jarritz, pertsonaren
eta gizartearen onura bilatzen duten
arauak beste arrazoi guztien gaindi jar-
ritz. Eta noski, gure aukera eta ardura
ere bada gure datu pertsonalak non eta
nori ematen ari garen arretaz aztertzea
eta nahi badugu ezetz esatea. •

arkitektura / hezkuntza / teknologia



GAUR8

3 BEGIRADA:

musikan ere elkarlanean
8 talde, 16 abesti.... diska bat

CATALUNYA ETA EUSKAL HERRIA

Baga-Biga, Música Global, Sonde3, Exits, Kasba eta Discmedi-ren eskutik

Euskal Herria
Hesian
Vendetta
Korrontzi
Itziarren semeak

Catalunya
Txarango
Els Catarres
La Sra. Tomasa
Buhos



Eskaintza berezia: Euskal Herrian **GARA** rekin bakarrik
Apirilaren 25 eta 26an, larunbata eta igandea
5,95€ soilik

